

2012

Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorrak

Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi

- **SEKZIOAK**
10- Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza
11- Kultura
- **SECCIONES**
10 - Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca
11 - Cultura

Administrazio Orokorra
Administración General

5



Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorrak

Presupuestos Generales de la
Comunidad Autónoma de Euskadi

2012

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

EKONOMIA ETA OGASUN
SAILA

DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA
Y HACIENDA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2012

Argitaratzailea: **Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**
Edita: Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Inprimaketa: **Eusko Jaurlaritzaren Inprenta eta Erreprografia Zerbitzua**
Imprime: Servicio de Imprenta y Reprografía del Gobierno Vasco

Lege gordailua: **BI 900-1983**
Depósito Legal:

10etik 11ra bitarteko sekzioak
Secciones 10 a 11

5 Alea
Tomo 5

Aurkibidea / Índice :

-	10 INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA.....	1
	<i>10 MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, AGRICULTURA Y PESCA</i>	
-	Sekzioaren eta Programen Memoriak	3
	<i>Memorias de la Sección y de los Programas</i>	
-	Gastuen egoera.....	109
	<i>El Estado de Gastos</i>	
	4313 Lurralde Antolamendua	111
	<i>Ordenación Territorial</i>	
	4420 Inguru., LP, Neka, A-10 Sai. Egitura eta Laguntza	115
	<i>Estructura y Apoyo Dpto.10-M.Am.,P.T.,Agri.,Pesc</i>	
	4421 Ingurumenaren Babesa	123
	<i>Protección del Medio Ambiente</i>	
	5121 Uraren Plangintza eta Administrazioa	139
	<i>Planificación y Administración Hidráulica</i>	
	5411 Nekazaritza eta Arrantza Alorreko Iker. eta Garap.....	141
	<i>Investigación y Desarrollo Agropesquero</i>	
	7111 Nekazaritza, eta Landaren eta Itsasertzaren gar.	145
	<i>Agricultura y Desarrollo Rural y Litoral</i>	
	7112 Arrantza	157
	<i>Pesca</i>	
	7113 Elikagaien Sustapena eta Kalitatea.....	163
	<i>Promoción y Calidad Alimentaria</i>	
-	Diru-sarrereren egoera	171
	<i>El Estado de Ingresos</i>	
	4313 Lurralde Antolamendua	173
	<i>Ordenación Territorial</i>	
	4420 Inguru., LP, Neka, A-10 Sai. Egitura eta Laguntza	175
	<i>Estructura y Apoyo Dpto.10-M.Am.,P.T.,Agri.,Pesc</i>	
	4421 Ingurumenaren Babesa	177
	<i>Protección del Medio Ambiente</i>	
	7111 Nekazaritza, eta Landaren eta Itsasertzaren gar.	179
	<i>Agricultura y Desarrollo Rural y Litoral</i>	
	7112 Arrantza	181
	<i>Pesca</i>	
	7113 Elikagaien Sustapena eta Kalitatea.....	183
	<i>Promoción y Calidad Alimentaria</i>	
-	Gastuen Laburpenak	185
	<i>Resúmenes de Gastos</i>	
-	Sarrereren Laburpenak	189
	<i>Resúmenes de Ingresos</i>	
-	11 KULTURA.....	193
	<i>11 CULTURA</i>	
-	Sekzioaren eta Programen Memoriak	195
	<i>Memorias de la Sección y de los Programas</i>	
-	Gastuen egoera.....	263
	<i>El Estado de Gastos</i>	
	3222 Gazteria	265

	<i>Juventud</i>	
4511	Kultura-11 Sailaren Egitura eta Laguntza.....	271
	<i>Estructura y Apoyo del Dpto. 11-Cultura</i>	
4512	Kirolak	279
	<i>Deportes</i>	
4513	Kulturaren Sustapena.....	285
	<i>Promoción de la Cultura</i>	
4514	Ondare Historiko Artistikoa	297
	<i>Patrimonio Histórico Artístico</i>	
4515	Gizarte Hedabideak	309
	<i>Medios de Comunicación Social</i>	
4711	Hizkuntza Politika	311
	<i>Política Lingüística</i>	
-	Diru-sarrereren egoera.....	323
	<i>El Estado de Ingresos</i>	
3222	Gazteria.....	325
	<i>Juventud</i>	
4511	Kultura-11 Sailaren Egitura eta Laguntza.....	327
	<i>Estructura y Apoyo del Dpto. 11-Cultura</i>	
4512	Kirolak	329
	<i>Deportes</i>	
4514	Ondare Historiko Artistikoa	331
	<i>Patrimonio Histórico Artístico</i>	
-	Gastuen Laburpenak.....	333
	<i>Resúmenes de Gastos</i>	
-	Sarrereren Laburpenak	337
	<i>Resúmenes de Ingresos</i>	



**10 INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA,
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA**

**10 MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL,
AGRICULTURA Y PESCA**





Sekzioaren eta Programen Memoriak
Memorias de la Sección y de los Programas



INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA**MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, AGRICULTURA Y PESCA**

Ekonomiaren egungo testuinguruan, 2011n bezalaxe, kontu publikoak doitzen jarraitu behar da eta, aldi berean, herria modernizatzeko, enplegua sortzeko eta EAEko jendartearen ongizatea lortzeko eraldaketak bultzatzen jarraitu ere bai.

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren 2012ko aurrekontu-politika Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu-politikaren baitan definitu da, eta honako helburu hau du: ekonomikoki eta sozialki iraunkorra den Euskal Autonomia Erkidegorantz aurrera egitea, lurraldearen bikaintasuna eta nekazaritza, arrantza eta elikagaingintzako sektore lehiakorra sustatua eta EAEko jendarteari balioa emango dioten pizgarriei lehentasuna emanda.

Ikuspegi hori, aldi berean, ikuspegi orokorrago batean sartzen da: "herritar askeak izango dituen Euskal Autonomia Erkidegoa, iraunkorra eta lehiakorra".

2009ko ekainaren 5ean, Urdaibaiko Adierazpena deiturikoan, Lehendakariak adierazi zuen garapen-eredu berriaren buru izateko asmoa zuela; eredu hori Eusko Jaurlaritzaren ekintza politikoaren zeharkako ardatz integratzailea izango zela, eta EcoEuskadi 2020 tresnaren bidez gauzatuko zela.

EcoEuskadi 2020 Euskal Autonomia Erkidegoak 2020ra arte duen garapen iraunkorraren estrategia da. Hortaz, iraunkortasun-ikuskeratik plan sektorialen xede estrategikoak ezartzeko tresna da.

EcoEuskadi 2020k garapen iraunkorrari buruzko kontzeptuan sakontzeko balioko du eta sailaren eta sektorearen politikak diseinatzeko.

Zehar izaera duenez, EcoEuskadi 2020 ekonomikoki lehiakorra, berritzailea eta ekoeragingarria den herria lortzeko ekintza publikoa bideratzeko bitartekoa da, eta gizarte ikuskeratik, herri kohesionatua, erantzulea eta natur ondarea osatzen duten baliabideekin eta ondasunekin konprometitua den herria.

Testuinguru horretan, Sailak, egituragatik berari dagozkion funtzioak burutzeko, bere ekintza politikoaren gida gisa, honako helburu estrategiko hauek definitu ditu:

INGURUMEN-ARLOA

1. Berotegi Efektuko Gasen isuriak arintzea eta EAEn klima-aldaketaren eraginak txikiagotzea.
2. Biologia-aniztasunaren galera geldiaraztea eta ekosistemak oneratzeko eta lurzorua artifizialtzea mugatzea.

El contexto económico actual, al igual que en el ejercicio 2011, exige continuar en el ajuste de las cuentas públicas, a la vez que propiciar transformaciones para la modernización del País, la creación de empleo y el bienestar para la sociedad vasca.

La política presupuestaria 2012 del Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca se define en el marco de la política presupuestaria del Gobierno Vasco, y tiene como objetivo avanzar progresivamente hacia la consecución de "una Euskadi medioambiental, económica y socialmente sostenible promoviendo la excelencia territorial y un sector agropesquero y alimentario competitivo, priorizando incentivos a aquellas acciones que aporten valor a la sociedad vasca".

Esta visión se enmarca, a su vez, en la visión más global, de "una Euskadi de ciudadanos y ciudadanas libres, solidaria, sostenible y competitiva".

El 5 de junio de 2009 en la llamada Declaración de Urdaibai, el Lehendakari manifestó su intención de liderar un nuevo modelo de desarrollo, como eje transversal e integrador de la acción política del Gobierno Vasco, a través de un instrumento al que denominó EcoEuskadi 2020.

EcoEuskadi 2020 es ya la Estrategia explicitada de Desarrollo Sostenible de Euskadi hasta el año 2020 y, como tal, es el instrumento en el que se establecen los objetivos estratégicos que enmarcan los planes sectoriales desde la perspectiva de la sostenibilidad.

EcoEuskadi 2020 va a servir para profundizar en el concepto de "Desarrollo Sostenible", interiorizando sus implicaciones para el diseño de las políticas departamentales y sectoriales.

En virtud de su carácter transversal, EcoEuskadi 2020 es el instrumento para articular la acción pública hacia un proyecto de país económicamente competitivo, innovador y ecoeficiente, socialmente cohesionado y corresponsable, comprometido con la calidad de los bienes y recursos que forman parte de su patrimonio natural.

En este marco, el Departamento, para el desarrollo de las funciones, que por estructura le corresponden, ha definido, como guía de su acción política, Objetivos Estratégicos como los siguientes:

ÁREA MEDIO AMBIENTAL

1. Mitigar las emisiones de Gases de Efecto Invernadero y minimizar los efectos del cambio climático en la CAPV.
2. Detener la pérdida de diversidad biológica y restaurar los ecosistemas y limitar la artificialización del suelo.

3. Baliabideen erabilera eraginkorra eta kontsumo arduratsua sustatzea.

4. Ingurune garbia eta osasungarria bermatzea.

5. Sailen eta erakundeen arteko koordinazioa eta lankidetzak sustatzea, araugintzako proiektuetan eta politika publikoetan ingurumen-aldagaia sar dadin bultzatuta.

6. Ekonomiaren, zientzia eta teknologiaren eta gizartearen arloko eragileak baterako erantzule egitea, merkatua ingurumenaren alde erabilita eta informazioa eta prestakuntza hobetuta.

LURRALDE-PLANGINTZAREN ARLOA

7. Bizi-iturrien erabilera mugatu eta arrazionalizatzea – ura, lurra, etab.–; guztiok ur-hornidura izatea bermatzea; uholdeei aurrea hartu eta uholdeak arintzea; okupatutako guneak egoera naturalera bihurtzea; muturreko klima-gertakarien arriskuak txikiagotzea, ur-sistemak babestuz eta saneatuz.

8. Lurraldearen bikaintasuna bilatzea eta ingurumena errespetatu eta hobetzea.

NEKAZARITZAKO ELIKADURAREN ETA LANDAKO ETA ITSASOKO ESPAZIOAREN ARLOA

9. Nekazaritza eta elikagaigintzaren sektorean eta landa nahiz itsasoko espazioaren lehiakortasuna eta iraunkortasuna bultzatzea, eta espazio horretako pertsonen bizi-kalitatea ere bai.

10. Kalitateko elikadura-produktuak eta balio erantsi handikoak sostengatzea.

11. Nekazaritza eta arrantzaren sektorearen prestakuntza, informazioa eta ezagutza hobetzea.

ADMINISTRAZIO-ARLOA

12. Administrazio-prozedurak modernizatu eta bizkortzea, kalitatea eta segurtasuna optimizatuz, pixkanaka e-Administrazioa ezartzearen bitartez.

13. Sailaren inguruko erakundeak arrazionalizatu eta modernizatzen jarraitzea.

3. Fomentar el uso eficiente de los recursos y el consumo responsable.

4. Garantizar un entorno limpio y saludable.

5. Potenciar la coordinación y cooperación interdepartamental e interinstitucional, impulsando la integración de la variable ambiental en los proyectos normativos y políticas públicas.

6. Corresponsabilizar a los agentes económicos, científico-tecnológicos y sociales de interés, utilizando el mercado a favor del medio ambiente y mejorando la información y la formación.

ÁREA DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL

7. Limitar y racionalizar el uso de los recursos agua, suelos, etc., garantizando el abastecimiento universal del agua, previniendo y paliando inundaciones, restituyendo espacios ocupados a su estado natural, mediante la minimización de riegos asociados a fenómenos climáticos extremos y protegiendo y saneando sistemas acuáticos.

8. Buscar progresivamente la excelencia territorial y respetar y mejorar el medio ambiente.

ÁREA AGROALIMENTARIA Y DEL ESPACIO RURAL Y LITORAL

9. Impulsar la competitividad y sostenibilidad del sector agroalimentario y del espacio rural y del litoral, así como la calidad de vida de las personas en dicho espacio.

10. Apoyar los productos alimentarios de calidad y de alto valor añadido.

11. Mejorar la formación, la información y el conocimiento sectorial agropesquero.

ÁREA ADMINISTRACIÓN

12. Modernizar y agilizar los procedimientos administrativos, optimizando calidad y seguridad, mediante la implantación progresiva de la e-Administración.

13. Continuar con la racionalización y modernización de las entidades del entorno departamental.

Helburu estrategiko horiek arian-arian lortzeko, aurrekontu-memoria honen ikuspegitik, aurrekontu-programa hauek garatu dira:

1. Ingurumenaren babesa.
2. Lurralde antolamendua.
3. Uraren plangintza eta administrazioa.
4. Nekazaritza eta landaren eta itsasertzaren garapena.
5. Arrantza.

La consecución progresiva de estos Objetivos Estratégicos se soporta, desde la perspectiva de esta memoria presupuestaria, en el desarrollo de los Programas Presupuestarios siguientes:

1. Protección del Medio Ambiente.
2. Ordenación Territorial.
3. Planificación y Administración Hidráulica.
4. Agricultura y Desarrollo Rural y Litoral.
5. Pesca.

6. Elikagaien sustapena eta kalitatea.

7. Nekazaritza eta arrantza arloko ikerketa eta garapena.

8. Egitura eta laguntza.

Ondorengo lerroetan, helburu horien alderdi garrantzitsuetarako lehen hurbilketa bat egiten da, eta zehaztasun eta xehetasun handiagoz azaltzen dira, programa bakoitza deskribatzeko atalean. Hor, aldi berean, helburuak, ekintzak eta adierazleak zehazten dira.

INGURUMENA BABESTEA

“Ingurumena babestea” Programa 2012 III. Ingurumeneko Esparru Programaren (2011n onartua) egituraren eta edukien arabera diseinatu da eta garapen iraunkorreko Eco-Euskadi 2020 estrategiarekin bat dator.

Berotegi-efektuko gasen isuriak gutxitu eta klima-aldaketak EAEn duen eragina minimizatzea da erronka nagusietako bat; honako ekintza gehigarri hauen bitartez saiaturako gara horri aurre egiten:

Sailen eta gobernuen arteko koordinazioa sustatzea hainbat aldetako lankidetzako konpromisoetan aurrera egiteko, Klima Aldaketaren Bulegoaren bidez, Klima Aldaketari buruzko Euskal Legearen Proiektua onartu eta 2010ean Klima Aldaketari aurre egiteko plan berria (2012-2020) onartzeko hasitako lanak amaitu ondoren.

Zientzia eta teknologiako eragileekin lankidetzan jardutea, esleipen-aldi berriari buruzko informazio kanpaina, karbono-aztarnaren eta nekazaritzako elikadura-produktuen ingurumen-etiketen jarraipena egitea eta herritarrek eta enpresek klima-aldaketari eta horri buruzko Jaurlaritzaren ekimenen inguruan duten informazioa hobetzea.

Klima-politika sektoreko plangintzan sar dadin sustatzea, karbonoaren kontabilitatea sustatzea, beste adierazle batzuk kontrolatzea eta berotegi-efektuko gasak isurtzeko eskubideen merkataritza-erregimenaren ondoriozko jarduerak betetzea.

Dibertsitate biologikoaren galera etetea, ekosistemak oneratzeko eta lurzuaren artifizialtzea mugatzea dira 2012. urtean zehar lortu beharreko erronkak, honako jarduerara-ildo hauen bitartez:

Araugintzako tresnak garatzea, herritarrek parte hartzeko webgunea mantendu eta hobetzea, ikerketa eta zientzia-munduaren inplikazioa sustatzea, Madariaga Dorretxeko Biodibertsitatearen Zentroa finkatzea, arriskuan dauden espezieen katalogoa eguneratzea, espezie exotiko inbaditzaileak kontrolatzeko, erradikatzeko eta horren inguruan sensibilizatzeko proiektuak egitea, bai eta biodibertsitatea zaindu eta hobetzeko diru-laguntzen programak finkatzea ere.

6. Promoción y Calidad Alimentaria.

7. Investigación y Desarrollo Agropesquero.

8. Estructura y Apoyo.

En las líneas que siguen, se hace una primera aproximación a aspectos relevantes de los mismos, con una mayor concreción y detalle en el apartado dedicado a describir cada programa, donde, a su vez, se especifican objetivos, acciones e indicadores.

PROTECCIÓN DEL MEDIO AMBIENTE

El Programa “ Protección del Medio Ambiente” 2012 se ha diseñado de acuerdo con la estructura y contenidos del III Programa Marco Ambiental (aprobado en 2011), y se alinea con la estrategia de desarrollo sostenible, Eco-Euskadi 2020.

Mitigar las emisiones de gases de efecto invernadero y minimizar los efectos del cambio climático en la CAPV es uno de los principales desafíos a afrontar, mediante el impulso de acciones complementarias, como:

Impulso a la coordinación interdepartamental e intergubernamental para avanzar en compromisos de cooperación multilateral, a través de la Oficina de Cambio Climático, una vez aprobado el Proyecto de Ley Vasca de Cambio Climático y finalizados los trabajos iniciados en 2010 para la adopción del nuevo Plan de Lucha frente al Cambio Climático 2012-2020.

Colaboración con los agentes científico-tecnológicos, campaña de información sobre el nuevo periodo de asignación, seguimiento de la huella de carbono y etiquetado ambiental del producto agroalimentario y mejora de la información a disposición de ciudadanos y empresas sobre el cambio climático e iniciativas del Gobierno al respecto.

Impulso a la integración de la política climática en la planificación sectorial, promoción de la contabilidad del carbono, control de otros indicadores y cumplimiento de las actuaciones derivadas del régimen de comercio de derechos de emisión de gases de efecto invernadero.

La detención de la pérdida de la diversidad biológica, la restauración de los ecosistemas y la limitación de la artificialización del suelo son retos a perseguir a lo largo del 2012, lo que se va a llevar a cabo mediante el desarrollo de líneas de actuación como:

Desarrollo de herramientas normativas, mantenimiento y mejora de la web de participación y colaboración ciudadana, el fomento de la investigación y la implicación del mundo científico, la consolidación del centro de Biodiversidad de Torre Madariaga, actualización del catálogo de especies amenazadas, desarrollo de proyectos de control, erradicación y sensibilización sobre especies exóticas invasoras, así como consolidación de los programas subvencionales para la conservación y mejora de la biodiversidad.

Euskal Autonomia Erkidegoan NATURA 2000 SAREA finkatzen jarraituko da. Horretarako behar den araudia onetsiko da, KBG Kontserbazio Bereziko Guneak eraldatu egingo dira, eta eskualde mediterraneoko egungo BILak, Batasunaren Intereseko Lekuak, KBG bilakatuko dira.

Natura-espazio babestuen kudeaketa arautzen duen arau-esparrua eguneratzea, zaindu edo lehengoratzeko proiektuak idatzi eta burutu daitezzen sustatzea, eta hitzarmenak sinatzea habitatakat zaindu eta hobetzeko, eta, garapen ekonomiko eta sozialari dagokionez, turismo-jarduera garatzea eta beherantz datozen industria-jarduerak etorkizuneko beste batzuekin ordezkatu daitezzen sustatzea.

Arreta berezia jartzea gobernantza eta parte hartzen duten administrazioen eta administratuen harremanak hobetzeko, MaB (Man and Biospher) (Gizakia eta Biosfera) programako estrategia berrien baitan, hezkuntzako eta bisitako azpiegiturak hobetzeko lanekin jarraitzea, bai eta Txingudin (Plaiaundi eta Jaizubia) lehengorapen ekologikorako programak sustatzea, Hendaiaiko EZI Ekimenen Zentro Iraunkorraren eta Txinbadia Programaren baitan.

Baliabideak era eraginkorrean erabil daitezzen eta kontsumoa arduratsua izan dadin sustatzea da honako ekintza hauen bitartez lortu nahi den beste helburuetariko bat:

Administrazio-agiriak kudeatzeko teletramitazioa ezartzea bultzatuko da, baimenak erregistroez ordezkatzeko eta administrazioa arintzeko beste mekanismo batzuk.

EEH Eraikuntzako eta Eraispeneko Hondakinak balorizatzeak aukera emango duen dekretu bat onartu eta aplikatzea.

Ekintzak babestea, hondakin arriskutsuen eta hondakin ez arriskutsuen kudeaketari dagokionez, hondakin gutxiago sortu eta sortzen direnen kaltegarritasuna txikiagoa izan dadin, hondakinak berrerabili, birziklatu edota egoki balioztatu eta ezaba daitezzen sustatzea, pertsonen osasunean nahiz ingurumenean kalterik sortu gabe.

Hondakin Arriskutsuak Kudeatzeko Plana idaztea, helburuan adierazitakoa oinarri hartuta eta osasunerako bereziki arriskutsuak diren hondakinaren berariazko korronteen kudeaketa jorratuta.

Jarraibide berriak (2012–2015) prestatzea, Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko lege berria oinarri hartuta, Koordinazio Organoa baliatuta foru aldundiekin eztabaidatu eta topatzeko gune gisa.

Continuación de la consolidación de la RED NATURA 2000 en el País Vasco, mediante la aprobación del marco normativo necesario para ello y la transformación de Zonas de Especial Conservación (ZEC) y la redesignación como ZECs de los Lugares de Interés Comunitario (LIC) actuales de la Región Mediterránea.

Actualización del marco normativo por el que se gestionan los espacios naturales Protegidos, impulso a la redacción y materialización de proyectos de conservación ó restauración, y firma de convenios para la conservación y mejora de los hábitats y promoción, en cuanto al desarrollo económico y social, del desarrollo de la actividad turística y la transformación de actividades industriales en decaimiento por otras de futuro.

Atención especial a la mejora de la gobernanza y de las relaciones entre las administraciones concurrentes y de éstas con los administrados, en el marco de las nuevas estrategias del programa MaB (Man and Biospher) (Hombre y Biosfera), continuación de los trabajos de mejora de infraestructuras educativas y de visita, así como impulso de programas de restauración ecológica en Txingudi (Plaiaundi y Jaizubia), en el marco del acuerdo con el CPI (Centro Permanente de Iniciativas) de Hendaia y el Programa Txinbadia.

El fomento del uso eficiente de los recursos y el consumo responsable es otro de los objetivos a conseguir mediante la realización de acciones como:

Fomento a la implantación de la teletramitación en la gestión de los documentos administrativos y la sustitución de autorizaciones por registros y otros mecanismos de agilización administrativa.

Aprobación y aplicación de un Decreto permita valorizar los Residuos de Construcción y Demolición (RCD).

El apoyo al desarrollo de acciones, en lo que respecta a la gestión de Residuos Peligrosos y No Peligrosos, orientadas a la prevención en la generación y minimización en origen de residuos, reduciendo su nocividad, incentivando la reutilización, el reciclado y cualesquiera otra forma de valorización y la eliminación correcta en condiciones tales que no suponga una amenaza para la salud de las personas y el medio ambiente.

Redacción del Plan de Gestión de Residuos Peligrosos, que tenga como referencia lo enunciado en el Objetivo, abordando la gestión de corrientes específicas de residuos especialmente peligrosas para la salud.

Elaboración de las nuevas Directrices, 2012 – 2015 con base en la nueva Ley de Residuos y Suelos Contaminados, contando con el Órgano de Coordinación como lugar de discusión y encuentro con las DDFF.

Baliabideak arduraz eta era arrazionalen kontsumitzea sustatzera bideratutako sentsibilizazio-jarduerak burutzea.	Articulación de actuaciones de sensibilización encaminadas a fomentar el consumo de recursos de forma responsable y racional.
Ingurune garbi eta osasungarria bermatzea ere helburua da, honako ekintza hauen bidez lortzen saiatuko dena:	Garantizar un entorno limpio y saludable es otro hito a conseguir, mediante la realización de acciones como:
Airearen Kalitatea Zaindu eta Kontrolatzeko Sarea optimizatu egingo da, airearen kalitatearen datuak hobeto islatzea bilatzeko eta Airearen Kalitatea Zaindu eta Kontrolatzeko Sare osoaren eraginkortasuna hobetzeko.	Optimización de la Red de Vigilancia y Control de la Calidad del Aire para buscar una mejor representatividad de los datos de la calidad del aire y mejora de la eficiencia del conjunto de la Red de Vigilancia y Control de la Calidad del Aire.
Atmosferarekin loturiko azterketak eta planak egitea.	Realización de estudios y planes relacionados con la atmósfera.
EAErako araudi bat garatuko da, zaratei buruzkoa, estatuko xedapenetan ezarritako arabidea osatzeko.	Desarrollo, en el tema de ruidos, de una normativa propia en la CAPV que complete el régimen previsto en la regulación estatal.
Lurzoru Kutsatuen Plana 2012 – 2015 egitea, 1/2005 Legearen printzipioak oinarri hartuta.	Elaboración del Plan de Suelos Contaminados 2012 – 2015, con base en los principios inspiradores de la modificación de la Ley 1/2005.
Kutsatutako lurzoruen legeriaren ondoriozko jarduerak burutzea.	Desarrollo de actuaciones derivadas de la legislación de suelos contaminados
Ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioak egitea: IEBE, IEE.	Realización de evaluaciones de impacto ambiental: Ecia, Eia.
Kutsaduraren kontrol integratuaren inguruko ekintzak burutzea.	Realización de acciones relacionadas con el control integrado de la contaminación.
Lehengo lan-ildoarekin jarraituko da, prozedurak sinplifikatzeko eta dosierak bideratzen laguntzen duten erakunde gisa ziurtatutako erakundeen esku-hartzeak gaitzeko. Arlo hau arautzen duen dekretua onartzea.	Continuación de la línea de trabajo orientada a la simplificación de procedimientos y a la habilitación de la intervención de entidades acreditadas como entidades colaboradoras en la tramitación de expedientes. Aprobación del Decreto que regule esta materia.
Ingurumenaren arloko erantzukizunaren inguruko jarduerak burutzea, ingurumen-erantzukizunaren 26/2007 Legearen 2090/2008 EDaren arabera.	Desarrollo de actuaciones en materia de responsabilidad ambiental en cumplimiento de la Ley 26/2007 de Responsabilidad Medioambiental y el R.D. 2090/2008.
Ingurumenaren arloko teknologia eta prozesu berritzaileak sustatzea.	Fomento de tecnologías y procesos ambientales innovadores.
Sailen eta erakundeen arteko koordinazioa eta lankidetzak sustatzea da, araugintzako proiektuetan eta politika publikoetan ingurumen-aldagaia sar dadin bultzatuta, beste helburuetariko bat.	La potenciación de la coordinación y cooperación interdepartamental e interinstitucional, impulsando la integración de la variable ambiental en los proyectos normativos y políticas públicas, es otro de los objetivos propuestos.
Ekonomiaren, zientzia eta teknologiaren eta gizartearen arloko intereseko eragileak baterako erantzule egitea, merkatua ingurumenaren onerako erabilia eta informazioa eta prestakuntza hobetuta; helburu hori honako ekintza hauen bitartez lortuko da:	La corresponsabilización de los agentes económicos, científico-tecnológicos y sociales de interés, utilizando el mercado a favor del medio ambiente y mejorando la información y la formación es, también, un hito fijado a conseguir mediante el desarrollo de acciones como:
EMAS (Ingurumen kudeaketaren eta ikuskaritzaren batasuneko sistemaren erregistroa) ezartzeko ekimenak sustatzea.	Promoción de iniciativas para la implantación de EMAS (Registro de sistema comunitario de gestión de auditorías ambientales).
Ekoetiketak sustatzea eta zerbitzua finkatzea.	Impulso a la implantación de ecoetiquetas y consolidación del servicio.

Ingurumenaren arloko hezkuntza eta informazioa eta interes taldeekiko harremanak sustatzea.

Potenciación de la Educación e Información Ambiental y de las relaciones con los grupos de interés.

LURRALDE-ANTOLAMENDUA

Programa honen ardatz nagusiak hauek dira: lurralde plangintzako tresnak lantzea, eta udalen hirigintza-araudia tresna horietara egokitzen den aztertzea, eta Eusko Jaurlaritzako Kartografia Basea egin, mantendu eta hedatzea.

Programak, lurralde-plangintzan, honako jarduera-ildo hauek definitu ditu 2012rako:

Lurralde antolamenduko eta hiri-antolamenduko ekintzak bultzatzea.

Paisaia Babesteko Legea onartzea eta hori sustatzea, Paisaiaren Katalogoak eta Jarraibideak sustatuta.

Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko 4/90 Legean ezarritako lurralde-antolamenduko agiriak sustatu, bideratu eta onestea.

Klima-aldaketaren eta lurralde-plangintzaren inguruan hasitako azterlanak burutzea.

Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordea kudeatzea.

“EUSKAL HIRIA 2012” kongresuaren XI. edizioa burutzea; hauek izango dira eztabaidarako gaiak: LAJ Lurraldearen Antolamendurako Jarraibideen Berrazterketa onartzea, Donostialdea-Bidasoa Behoko LPP Lurralde Plan Partziala eta Paisaiaren Lege-proiektua onestea.

Gobernu Kontseiluari aurkeztu beharreko dekretuak landuz (nahitaezko desjabetzeak eragiten dien ondasun eta eskubideak berehala hartu beharrekoak direla aldarrikatzea, etab.), 4/90 Legearen 26. artikuluan xedatutako zereginak egitea.

Industria-aurriak eraisten laguntzea, epe luzerako eta interesik gabeko maileguak emanez. Horrela, eraikin horiek lurraldean eragiten duten inpaktu negatiboa desagerrarazten da, gero hirigintzan berreskuratu eta berritzeko.

Udal-plangintzaren gaineko informazioa kudeatzea, internet bidez.

Lurralde Plangintzarako zehaztapenak garatzea, eta horiek burutzeko udalekin hitzarmenak sinatzea.

Sailak sustatzen dituen ingurumen-arloko lanak tarteko desjabetze-jarduerak aurrera eramatea, eta berehala hartu beharrekoak direla deklaratzeko, jendartearen eskariari erantzun egokia emango dion lurralde-antolamenduaren helburu orokorra lortzeko.

ORDENACIÓN TERRITORIAL

Este programa tiene como principales Ejes de actuación, la elaboración de instrumentos de planeamiento territorial, unidos al análisis de la adecuación de la normativa urbanística municipal a dichos instrumentos; y la elaboración, mantenimiento y difusión de la base cartográfica del Gobierno Vasco.

El Programa ha definido para 2012 en el planeamiento territorial las siguientes líneas de actuación:

Impulso de actuaciones en relación con la ordenación del territorio y ordenación urbana.

Aprobación de la Ley de Protección de Paisaje y desarrollo de la misma con la promoción de Catálogos y Directrices del Paisaje.

Promoción, tramitación y aprobación de documentos de ordenación territorial previstos en la Ley 4/90 de Ordenación del Territorio del País Vasco.

Realización de estudios, ya iniciados, sobre Cambio Climático y Planificación Territorial.

Gestión de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco.

Realización de la XI edición del Congreso “EUSKAL HIRIA 2012”, siendo la aprobación del Reestudio de las DOT (Directrices de Ordenación del Territorio), la aprobación del PTP (Plan Territorial Parcial) de Donostialdea-Bajo Bidasoa y el Proyecto de Ley del Paisaje, temas de debate para el citado Congreso.

Ejecución de las tareas encomendadas por el Art. 26 de la Ley 4/90, mediante la elaboración de Decretos a elevar al Consejo de Gobierno (Declaración de urgencia a la ocupación de los bienes y derechos afectados por la expropiación forzosa, etc.).

Apoyo a la demolición de Ruinas Industriales, mediante la concesión de préstamo a largo plazo y sin interés, con objeto de anular el impacto negativo que estas edificaciones provocan en el territorio para su posterior recuperación y renovación urbana.

Gestión de la información sobre el planeamiento municipal a través de Internet.

Desarrollo de determinaciones de Planeamiento Territorial, así como de Convenios con Ayuntamientos para su ejecución.

Ejecución de actuaciones de expropiación en diversas operaciones de carácter ambiental promovidas por el Departamento y actuaciones de declaración de urgencia a la ocupación, en cumplimiento del objetivo global de la consecución de una ordenación territorial que dé respuesta adecuada a la demanda social

Kartografiaren eta Informazio Geografikoaren arloan, programak tresnen inguruko honako helburu hauek definitu ditu 2012rako:

Erakundeen arteko koordinazioa lortzea, geodesiaren, kartografiaren eta geografia-informazioaren arloko hitzarmenak sinatuta.

Kartografia eta ortoargazkiak garatzea, sailaren erantzukizuna da eta.

Euskadiko Espazioko Datuen Azpiegitura (EDA) abian jartzea.

URAREN PLANGINTZA ETA ADMINISTRAZIOA

Uren politikaren esparruan, urrats garrantzitsuak egiten ari dira, uholde-arriskuen aurrean prebentzio eta babes neurriak hartzean.

2012ko ekitaldian, helburu instrumental nagusiak hauek izango dira:

EAEko ur-masen egoera ekologikoa babestu eta hobetzea, bai eta autonomia-erkidegoko saneamenduplanak gauzatzea ere.

Kantitate eta kalitate oneko hornidura unibertsala lortzea.

Uholde-arriskuei aurrea hartzea eta babestea.

Uraren administrazio eraginkorra.

Uraren ikerkuntza eta aprobetxamendu iraunkorra eta uraren arloko teknologia-berrikuntza sustatu eta bultzatzea.

URA, tokiko mailan, Estatuan, Europan eta nazioartean uren arloko erreferentzia gisa aitortzea.

NEKAZARITZA ETA LANDAREN ETA ITSASERTZAREN GARAPENA

Programa hau, nekazaritzako elikagaien eremuko gainerako programak bezala, printzipio honetatik abiatzen da: politika publikoetan jasagarritasunerako irizpideak hartzeak parte hartzeko eta lehiakortasunerako aukera berriak ekartzen dituela nekazaritzako elikagaien arloan eta landaren eta arrantzaren eremuetan. Sektore horretan eta eremu horretan, beharrezkoa da arreta berezia jartzen jarraitzea, eta zerbitzu kolektiboen gaitasunak gabeziak desagerraraztea, prestakuntzarako aukerak eskainiz eta ekintzaile izateko gaitasunari laguntza publikoa handiagoa emanez.

BPGari egiten dion ekarpenaz haratago, EAEko nekazaritzako elikagaien eremua eta arloa "sektore estrategiko" gisa ikusten da, lurraldearen kudeaketan eta elikagai osasungarri eta kalitatekoen ekoizpenean garrantzia erabakigarria duelako.

Programa hiru ardatz handitan oinarritzen da:

En el ámbito de la Cartografía y la Información Geográfica, el Programa ha definido para 2012 los siguientes objetivos instrumentales:

Coordinación interinstitucional en materia de geodesia, cartografía e información geográfica, mediante la firma de convenios.

Desarrollo de la cartografía y ortofotografía, responsabilidad Departamental.

Puesta en marcha de la Infraestructura de Datos Espaciales (IDE) de Euskadi.

PLANIFICACIÓN Y ADMINISTRACIÓN HIDRÁULICA

En el ámbito de la política de aguas, se están dando importantes pasos en la adopción de medidas de prevención y protección frente a los riesgos de inundación.

En el ejercicio 2012, los principales objetivos instrumentales se pueden enumerar como sigue:

Protección y mejora del estado ecológico de las masas de agua de la CAE, así como la culminación de los planes de saneamiento de la Comunidad.

Obtención del abastecimiento universal en cantidad y calidad suficiente.

Prevención y defensa ante los riesgos de inundación.

Administración eficaz del Agua.

Investigación y aprovechamiento sostenible del recurso agua, así como la promoción e impulso de la innovación tecnológica en el campo del agua.

Reconocimiento de URA a nivel local, nacional, europeo e internacional como referente materia de aguas.

AGRICULTURA Y DESARROLLO RURAL Y LITORAL

Este Programa, al igual que el resto de programas en el área agroalimentaria, parte del principio de que la adopción de criterios de sostenibilidad en las políticas públicas entraña nuevas oportunidades de participación y competitividad en el sector agroalimentario y en el espacio rural y pesquero, sector y espacio al que es necesario seguir prestando una especial atención, eliminando carencias en materia de servicios colectivos, ofreciendo alternativas de formación e impulsando un mayor apoyo público a la capacidad emprendedora.

Más allá de su aportación al PIB, el espacio y el sector agroalimentario vasco se contempla como un "sector estratégico", al revestir una importancia decisiva en la gestión del territorio y en la producción de alimentos sanos y de calidad.

El Programa pivota sobre tres grandes Ejes:

Nekazaritza

Landaren Garapena eta

Itsasertzaren Garapena

Agricultura

Desarrollo Rural y

Desarrollo Litoral

Lehenagoaren helburua nekazaritzako sektore iraunkor baterantz jotzea da. Kontzeptu horrekin, hau esan nahi da: ekonomikoki errentagarria, ingurumenarekin errespetuzkoa eta laguntzailea eta ekintzaileei bizi-kalitatea eta jendartearen aintzatespena ematen diena. Errokarik garrantzitsuen lehiakortasuna lortzea da, prezioak oso baxuak diren une honetan, krisiak atzera eginarazi dion kontsumoarekin, eta lehiakideen arauak errespetatu behar diren ingurunean. Horretarako, sailak honako helburu instrumental hauek zehaztu ditu:

1. Nekazari Gazteen Plana sustatzea.
2. Kooperatibismoaren Plana garatzea.
3. Ingurumenarekin eta animalien ongizatearekin errespetuz jokatzeko duten ekoizpen-sistemak sustatzea eta jardueraren azpiproduktuak eta hondakinak era egokian kudeatzeko aukera ematen duten teknikak eta prozesuak garatzea.
4. Nekazaritza kudeatzeko sistema sinergikoak bultzatzea. Sistema horiek bateragarriak izan beharko dute honako hauekin: baliabide naturalak zaintzearekin, animalien ongizatearekin, ekosistemak zaindu eta hobetzearekin, eta landa-paisaia iraunkortasunerako baliabidea den aldetik zaindu eta hobetzearekin.
5. Tokiko arraza eta aldaeretan oinarritutako ekoizpena bultzatzea. Arraza eta barietate horien egungo eta etorkizuneko egoera egoki kudeatuko dela bermatuko duten arauak garatuko dira.
6. Berrikuntzari laguntzea, ekoizpenaren barruko eta kanpoko prozesuak hobetzearen arloan.
7. Legeen eta administrazioaren betebeharrak betetzeko tresnetan hobekuntzak egitea.
8. Nekazaritzako Aseguruaren lan-mahaiarekin jarraitzea.

“Landaren garapena” ardatzean, landaguneen garapena sakondu eta bultzatzearen alde egiten da, ez ingurune horretan bizi diren pertsonetikiko konpromiso gisa soilik, ezpada lurraldea egituratzeko eta garapen jasagarria lortzeko oinarri gisa. Landa-garapenaren hitza gainditu egin nahi da, eta NPBan orain arte ulertu den modutik lurraldearen garapenera igaro. Horretarako, helburu instrumental hauek bultzatuko dira:

1. Bizi-kalitatea hobetzea eta landa-eremuan jarduerak ekonomikoki eta sozialak dibertsifikatzea sustatzea.
2. Sasoiko Langileari Arreta eskaintzeko Osoko III. Plana koordinatzea, sasoiko langileei ostatu emateko dekretua aldatuta.

El primero tiene como meta avanzar hacia un sector agrario sostenible, entendiendo este concepto como rentable económicamente, respetuoso y colaborador con el medio ambiente y que aporta calidad de vida y reconocimiento social a su actores, siendo sus retos más importantes conseguir competitividad en un momento de precios muy bajos, con un consumo retraído por la crisis y en un entorno que debe respetar las reglas de la competencia. Para ello el Departamento ha definido líneas de actuación como las siguientes:

1. El fomento del Plan de Jóvenes Agricultores.
2. El desarrollo del Plan de Cooperativismo.
3. El fomento de los sistemas de producción respetuosos con el medio ambiente y el bienestar animal y del desarrollo de técnicas y procesos que permitan la adecuada gestión de los subproductos de la actividad y los residuos.
4. El impulso de sistemas de gestión agraria sinérgicos con la conservación de recursos naturales, el bienestar animal, la conservación y mejora de ecosistemas y conservación y mejora del paisaje rural como instrumento de sostenibilidad.
5. El impulso a la producción basada en razas y variedades locales. Se va a avanzar en un desarrollo normativo que garantice la correcta gestión de estas razas y variedades y su futuro.
6. El apoyo a la innovación en cuanto a mejora de los procesos internos y externos de producción.
7. La implementación de mejoras en las herramientas para cumplir obligaciones legales y administrativas.
8. La continuación de la mesa de trabajo de Seguros Agrarios.

Por su parte, en el Eje “Desarrollo Rural”, se apuesta por profundizar e impulsar el desarrollo del espacio rural, no sólo desde una visión de compromiso con las personas que viven en este medio, sino también como base de vertebración territorial y desarrollo sostenible, trascendiendo la palabra desarrollo rural, tal y como se ha venido entendiendo hasta ahora dentro de la PAC, a desarrollo territorial, impulsando para ello objetivos instrumentales como:

1. La mejora de la calidad de vida y fomento de la diversificación de las actividades económicas y sociales en el espacio rural.
2. La coordinación del III Plan Integral de Atención al Trabajador Temporero, con la modificación del decreto de alojamientos a los temporeros.

3. Itsasmendikoi, landako eta itsasertzeko eremuen prestakuntza, sustapen eta garapenerako zentro integralean, prestakuntza garatzea.

4. Erakunde arteko lankidetzak bultzatzea, sareko egitasmoetan parte hartuz, bai Europa mailan eta bai estatu mailan.

5. Nazioarteko harreman-sarean finkatzea.

Kostaldea garatzeko ardatzean, programak honako jarduerak izango dituzte 2012rako:

Kostaldea garatzeko lehen plana abian jartzea, arrantzako funts europarren IV. ardatzaren baitan dibertsifikazio eta bilketaren arloko Europako araudiaren arabera, eta esparru horretan parte hartzen duten eragile guztien lankidetzarekin prestatuta.

Itsaspen Dekretua onartzea, kostaldea garatzeko lehen planean bildutako kostaldea garatzeko plan berriaren ondorioz.

ARRANTZA

Programa honen helburua "Arrantzaren Euskal Autonomia Erkidegoko 2009-2013 aldirako Plan Estrategikoa" arian arian ezartzea da. Plan horren xedea da "arrantzaren arloko eta inguruko pertsonen bizi-kalitatea hobetzea eta garapen jasangarria bultzatzea, kalitateko produktuak eta zerbitzuak sortzen dituzten balio erantsidun arrantza-entresak bultzatuz, natura-ondarearen erabilera zentzuzkoa eta arduratsua bermatuz eta kultura-ondarea zainduz".

Programa honetan, erreferentetzat jotzen da uretako bizi-iturri biziaren ustiapen eta akuikultura jasangarria; eta jasangarria esatean, ingurumena, ekonomia eta jendartearen alderdien oreka bilatzea esan nahi da. Hori da APB Arrantza-politika Bateratuaren helburua. Politika horrek arautzen ditu uretako izaki bizia zaindu, kudeatu eta ustiatzeko jarduerak, baita akuikultura ere, eta arrantza eta akuikulturako produktuak eraldatzea eta merkaturatzea ere bai.

Alor horretan, 2012rako, helburu instrumentala hauek zehaztu dira:

1. Arrantza sektorearen garapen lehiakorra mantentzea, eta ontziteriaren arrantza ahalmena baliabideetara egokitzea, baliabideen ustiapen jasangarria lortze aldera.

2. Itsasoko baliabideen kudeaketa hobetzea, ingurumenaren alderditik begiratuta, industria bideragarri eta lehiakorra garatzen laguntzeko (adibidez, Artisau-arrantza Babestu eta Ezagutzeko Plana).

3. Ingurumenaren jasangarritasunari eutsiko dion esparru batean, itsas akuikulturako produkzioa handitzea: SIREA egitasmoa.

3. El desarrollo de la formación, desde Itsasmendikoi, Centro Integral para la Formación, Inserción y Desarrollo Rural y Litoral.

4. El impulso a la cooperación interinstitucional participando en proyectos en red tanto a nivel europeo como a nivel estatal.

5. La consolidación de redes de relaciones internacionales.

El Programa, en el Eje Desarrollo del Litoral, ha definido para 2012 las siguientes líneas de actuación:

Puesta en marcha del primer plan de desarrollo litoral, ajustado a la normativa europea en materia de diversificación y recogida dentro del Eje IV de los fondos europeos de pesca y elaborado con la colaboración de todos los agentes que participan en dicho ámbito.

Aprobación del Decreto Itsaspen como consecuencia de la nueva estrategia de desarrollo litoral recogida en el primer plan de desarrollo litoral.

PESCA

Este Programa tiene como objetivo la aplicación progresiva del "Plan Estratégico de la Pesca del País Vasco 2009-2013", que tiene como misión "Mejorar la calidad de vida de las personas del sector pesquero y de su entorno e impulsar el desarrollo sostenible, apoyando empresas pesqueras de valor añadido que generen productos y servicios de calidad, garantizando un uso racional y responsable del patrimonio natural y preservando el cultural".

El Programa considera como referente la explotación sostenible de los recursos acuáticos vivos y de la acuicultura, entendiéndolo como sostenible la búsqueda de un equilibrio entre los aspectos medioambientales, económicos y sociales, objetivo de la Política Pesquera Común (PPC), reguladora de las actividades de conservación, gestión y explotación de los recursos acuáticos vivos, incluida la acuicultura, así como la transformación y comercialización de los productos de la pesca y la acuicultura.

En este marco, los objetivos instrumentales definidos al efecto para 2012 se concretan en:

1. La adaptación de la capacidad pesquera de la flota a los recursos para una explotación sostenible de los mismos, manteniendo un desarrollo competitivo del sector.

2. La mejora de la gestión de los recursos marinos, enfocada desde una perspectiva medioambiental, que apoye el desarrollo de una industria viable y competitiva (por ejemplo, Plan de Apoyo y conocimiento de la Pesca Artesanal).

3. El aumento de la producción acuícola marina en un marco, también de sostenibilidad ambiental: Proyecto SIREA.

4. Oro har pertsonen arloari balioa ematea, eta bereziki emakumeari (Emakumea Profesionaltasunean Garatzeko Plana).

5. Prestakuntza sektorearen eskaerari egokitzea eta zentroak inguruan integratzea, eta ikerketa nahiz berrikuntza bultzatzea (Berrikuntza Programarekin koordinatuta), arrantzako prozesuak hobetzeko.

6. 2007-2013 aldirako AEF Eragiketa Programa gauzatzea.

7. Segimendu-ekintzak egin eta laguntza teknikoa ematea, hainbat jardura zuzen koordinatzeko. Adibidez: AEF funtsak koordinatzeko bileran eta Kantauriko Ipar-ekialdeko bileretan parte hartzea.

4. La valorización en el sector de las personas, en general, y de la mujer, en particular (Plan de Desarrollo Profesional de la Mujer).

5. La adaptación de la Formación a la demanda en el sector y la integración de los centros con el entorno, así como el impulso de la investigación-innovación (en coordinación con el Programa Innovación) para la mejora de los procesos de la pesca.

6. La ejecución del Programa Operativo FEP 2007-2013.

7 La realización de acciones de seguimiento y asistencia técnica para la correcta coordinación de diversas actuaciones, como por ejemplo: Participación en la reunión de coordinación de los fondos FEP, Participación en reuniones del Cantábrico Noroeste.

ELIKAGAIEN SUSTAPENA ETA KALITATEA

Programaren azken helburua nekazaritzako elikagaien EAEko sektorean lehiakortasuna indartzea da, Eusko Jaurlaritzak definitutako iraunkortasun-estrategiaren baitan. Jarduteko erreferenteak hauek dira: 2010-2013 aldirako Nekazaritza eta Landa Garapenaren Plan Estrategikoa, 2010-2013 aldirako Elikagaien Industria eta Kalitatearen Plan Estrategikoa, 2011-2014 aldirako Zuraren Industriaren Plan Estrategikoa eta 2010-2013 aldirako Nekazaritza Arloaren Lehiakortasun Plana.

Programa bi ardatz handitan oinarritzen da: Nekazaritzako elikagaien industria (elikagaiena eta zurarena) eta elikagaien kalitatea.

Elikagaien EAEko Industrian jarduteko ildo nagusiak honela zehaztu dira:

1. Industriaren neurria handitzea, lehiakortasuna hobetzeko.

2. Produktuak dibertsifikatzea, eta aldi berean nazioarteko bilakatzeko aukera ematea, gero eta merkatu orokorragoetan lehiatzeko eta merkatu berrietara sartzeko.

3. Elikagaiak eraldatzeko kate osoan integrazio handiena izatea, nekazaritzako ustategietatik eurretatik hasi eta arraina lehorreratzeko portuetara, eta produktua banatzeko kateetaraino.

4. Elikagaien arloan eraldatzea eta merkaturatzea hobetzeko aukera ematen duten prozesu berritzaileen babesa: bereziki, garapen teknologiko eta produktu berriak aplikatuz.

5. Artisau erako ekoizpenaren garapena: batik bat, nekazaritzako ustategietan eta portuetan bertan. Horrek lagundu egiten du landaguneak eta itsasertzak garatzen, eta pertsonak trebatzen, beren lanaren kalitatea eta industria mota horren bideragarritasuna eta egonkortasuna bermatzeko modu bezala.

PROMOCIÓN Y CALIDAD ALIMENTARIA

Este Programa tiene como Objetivo Final potenciar la competitividad del sector agroalimentario vasco en el marco de la estrategia de sostenibilidad definida por el Gobierno Vasco, siendo sus referentes de actuación el Plan Estratégico de Agricultura y Desarrollo Rural 2010-2013, el Plan Estratégico de la Industria y la Calidad Alimentaria 2010-2013, el Plan Estratégico de la Madera 2011-2014 y el Plan de Competitividad del Sector Agrario Vasco 2010-2013.

El Programa pivota sobre dos grandes Ejes: la Industria Agroalimentaria (Alimentaria y de la Madera) y la Calidad Alimentaria.

La estrategia definida para la Industria Alimentaria de la CAE se concreta en:

1. Aumento de dimensión de la industria, para la mejora de su competitividad.

2. Diversificación de productos, que a su vez permita la internacionalización para competir en mercados cada vez más globales y el acceso a nuevos mercados.

3. Mayor integración en toda la cadena de transformación alimentaria, desde las propias explotaciones agrarias y puertos de desembarque de pescado hasta las cadenas de distribución del producto.

4. Apoyo a los procesos innovadores que permitan mejorar la transformación y comercialización del sector alimentario, especialmente mediante la aplicación de nuevos desarrollos tecnológicos y de productos.

5. Desarrollo de la producción artesanal, sobre todo en las propias explotaciones agrarias y puertos, lo que favorece el desarrollo de las zonas rurales y litorales, y la formación de las personas, como medio de garantizar la calidad de su labor y la viabilidad y estabilidad de este tipo de industria.

6. Enpresa-kudeaketako eredu eta giza baliabideetako politika berriak sortzeak, pertsonen garapen profesionalerako erakargarria den elikagaien sektorea izateko.

7. Baliabide naturalak era eraginkorrean eta arduraz erabili eta aprobetxatzea, materiak, ura eta energia aurrezteko, aldi berean hondakinak, isuriak eta emisioak minimizatuta.

Zuraren euskal industriarako definitutako estrategiaren ildo nagusiak hauek dira:

1. Produktu berriak garatzea eta egungo ekoizpenaren dibertsifikazioa, azaleratzen ari diren merkatuan bilatuz.
2. Landutako zurari balio erantsi handiagoa ematea.
3. Oro har industriaren lehiakortasuna hobetzea.
4. Ingurune orokortuetan enpresa gaitasunak hobetzea.
5. Tokiko zurarentzat irudi-kanpaina bat egitea, bereziki intsinis pinuari buruzkoa, irismen zabaleko kultura-aldaketa lortzeko.
6. Zuraren inguruko irakaskuntza profesional eta teknikoa sustatzea.

Estrategia horiek gauzatzeko, programak honako jardueraren ildo hauek definitu ditu 2012rako:

1. Elikagaien industriako eta basogintzako produktuak eraldatu eta merkaturatzeko prozesuak hobetzea.
2. Arloaren hezurdura modernizatzea eta erakundearen egiturei finantza aldetik laguntzea.

“Elikagaien Kalitatea”ren ardatza tresna garrantzitsua da nekazaritzaren EAEko sektorean lehiakortasuna berritzeko. Ardatz hori garatzeko, jardueraren ildo hauek ezarri dira:

6. Gasteizko Buesa Arena handitzeko dirulaguntza (Vitoria-Gasteiz).	1	6. Subvención para ampliación del Buesa Arena (Vitoria-Gasteiz).
7. Kanpo-proiektzioa duten EAeko kirol-ekitaldietan kolaboratzea.	1	7. Colaboración en la organización de eventos deportivos en la CAPV con potencial de proyección exterior.
4. ARIKETA FISIKOA, KIROLA ETA OSASUNA		4. ACTIVIDAD FISICA, DEPORTE Y SALUD
1. Ariketa Fisiko, Kirol eta Osasunaren Plan Integrala garatzea.	1	1. Desarrollo del Plan Integral de Actividad Física, Deporte y Salud.
2. Jarduera programak: Bizikleta Plana, Basque Trail.	21	2. Programas de actividades: Plan Bici, Basque Trail.
3. Dopajearen aurkako programa garatzea, euskal kirol-federazioekin elkarlanean.		3. En colaboración con las Federaciones deportivas vascas, desarrollo del programa contra el dopaje
5. KIROLEAN BERRIKUNTZA GARATZEA		5. DESARROLLO DE LA INNOVACIÓN EN EL DEPORTE
1. INNOBAT Kirolaren Berrikuntza Zentroaren programak definitzea eta zehaztea.	1	1. Definición y concreción de programas del Centro de innovación en el Deporte INNOBAT.
2. Kirolaren berrikuntzari buruzko foroetan parte hartzea.	1	2. Participación en Foros sobre innovación en el Deporte.
6. SAILARTEKO ETA ERAKUKNDEARTEKO JARDUERAK INDARTZEA		6. POTENCIACIÓN DE ACTUACIONES INTERDEPARTAMENTALES E INTERINSTITUCIONALES
1. Hitzarmena Kirol Kontseilu Gorenarekin, EAeko kirol instalazioen eta ekipamenduen errolda sortzeko eta kudeatzeko.	1	1. Convenio con el Consejo Superior de Deportes para la creación y gestión del Censo de Instalaciones y equipamientos deportivos de la CAPV.
2. Lankidetzeta-hitzarmena Kirol Kontseilu Gorenarekin, Fadurako HTZri buruz.	1	2. Convenio de colaboración con el Consejo Superior de Deportes en relación al CPT de Fadura.
3. Lankidetzeta-esparru egonkorra Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin, Osasun eta Kontsumo Sailarekin eta Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailarekin.	3	3. Marco de colaboración estable con los Departamentos de Educación, Universidades e Investigación, Sanidad y Consumo e Industria, Innovación, Comercio y Turismo.
7. KIROLAREN EUSKAL ESKOLA		7. ESCUELA VASCA DEL DEPORTE
1. Jarduera berrantolatzea. Egitura berria martxan jartzea.	2	1. Reordenación de la actividad. Puesta en marcha de la nueva estructura.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
2. Prestakuntza Programa lantzea eta martxan jartzea.	20	2. Elaboración y puesta en marcha del Programa Formativo.
8. ARAUZKO GARAPENA		8. DESARROLLO NORMATIVO
1. Euskadiko Dopajearen aurkako Lege Proiektua izapidetzea.	1	1. Tramitación del Proyecto de Ley contra el Dopaje en el País Vasco.
2. Euskadiko Kirol Lanbideei buruzko Lege Proiektua izapidetzea.		2. Tramitación del Proyecto de Ley del Ejercicio de las Profesiones Deportivas en el País Vasco.

PROGRAMA	PROGRAMA
4513 KULTURAREN SUSTAPENA	4513 PROMOCIÓN DE LA CULTURA
ARDURADUNA	RESPONSABLE
<u>11 KULTURA</u>	<u>11 CULTURA</u>
KULTURA, GAZTERIA ETA KIROL SAILBURUORDEA	VICECONSEJERO DE CULTURA, JUVENTUD Y DEPORTES

MEMORIA

Kultura Sustatzeko Zuzendaritzaren helburua da euskal kulturaren eta arteen adierazpideen prestakuntza, sorkuntza, ekoizpena, zabalkundea eta kalitatezko eskaintza bultzatzea (musika, antzerkia, dantza, liburua, ikus-entzunezkoa eta arte bisualak...) , eta kultura-arlo horietarako sarbidea erraztea. Horrekin batera, emakume eta gizonen parte hartzean oreka handiagoa bilatuko du, eta arlo horietan euskararen presentzia eta erabilera bultzatuko ditu.

Sailaren 2010-2013 plan estrategiko berriak honako jardun-lerro hauek proposatzen ditu:

- LE 1. Kulturen Aldeko Herritartasun Kontratua.
- LE 2. Ekintza sortzailea sustatzea eta Sorkuntza Lantegiak.
- LE 3. Kulturen, bakearen eta askatasunaren urtea eta arte, natura, sorkuntza eta pentsamenduaren Bienala.
- LE 4. Kultura Bultzatuz.
- LE 5. Kultura 2.0 Plana.
- LE 6. Kultura jasangarria.
- LE 7. Heziketa artistikoa sustatzea.
- LE 8. Kanpo-proiektzioa.

La Dirección de Promoción de la Cultura tiene como objetivo promover la formación, la creación, la producción, la difusión y una oferta de calidad de las diferentes expresiones de la cultura y de las artes vascas (música, teatro, danza, libro, audiovisual y artes visuales...), facilitando el acceso a las mismas. Promoverá al mismo tiempo un mayor equilibrio en la participación de mujeres y hombres, y fomentará la presencia y el uso del euskera en dichas áreas.

El nuevo plan estratégico del Departamento para los años 2010-2013 propone las siguientes líneas de actuación:

- LE 1. Contrato ciudadano por las culturas.
- LE 2. Fomento de la acción creativa y fábricas de la creación.
- LE 3. Año de las culturas, de la paz y la libertad y Bienal de arte, naturaleza, creación y pensamiento.
- LE 4. Kultura Bultzatuz.
- LE 5. Plan cultura 2.0
- LE 6. Cultura sostenible.
- LE 7. Fomento de la educación artística.
- LE 8. Proyección exterior.

1. KULTUREN ALDEKO HERRITARTASUN KONTRATUA. Talde operatiboeekin proiektuak lehenesteko lanak amaitu ondoren, proiektuoi ekiteko garaia da, honako helburu nagusi hauek gogoan hartuta: a) Kulturen aldeko herritartasun-kontratu bat, prozesuaren amaierako xedetzat erakundeek beraiek jarrera proaktibo eta elkarriztatzailea bereganatzeko hartzen duten konpromisoa islatuko duena, b) Kultura sarbiderako Euskal Legearen proposamen bat, administrazioen konpromiso gutxieneko batzuen esparrua markatuko duena, alegia, kultura-marko inklusibo, askotariko, sortzaile eta jasangarria bultzatze aldera, kulturaren esparru guztietan ekinbide publikotik bete beharreko baldintza minimoek erantzuna emateko.

Gaur egungo erronka garrantzitsuenetako bat herritarra kultura-politikaren erdigunean jartzea da. Ezin ditugu herritarrak kontsumitzaile huts bihurtu, dela kultura-ondasunen kontsumitzaile, dela arte-ondasunen kontsumitzaile. Aitzitik, urrats garbi eta tinkoak eman behar ditugu herritartasun kulturala eraikitzeari begira, esan nahi baita kultura-esanahi eta kultura-destinoa sortzeko lanetan aktiboki parte hartzeko norbanakoen eta gizartearen gaitasuntzat ulertuta herritartasun hori. Soilik herritarren sare aktibo batek berma dezake sortzaile berriak eta kultura-industria berriak emango dituen haztegi egokia.

Herritarren parte hartzea utzi ezinezko baliotzat hartuko duen hurbiltasunezko kultura bat bultzatuko dugu, herritarrengandik sortu eta herritarrentzako izango den kultura, gizartearen luze-laburra, konplexutasuna eta sentiberatasun guztiak besarkatuko dituena; kultura-politiken hartzaile eta benetako aktoreak euskal herritarrak direla ahaztuko ez duen kultura. Herri honek bere benetako izaera plurala islatuko duen irudia behar du kulturari. Askotarikoa. Eta askotarikotasun hori aitortzeko, gozatzeko eta, are, ugaritzeko aukera eman behar zaio.

2. EKINTZA SORTZAILEA SUSTATZEA ETA SORMEN LANTEGIAK. Euskadiko sorkuntza-sareari bere arte-adierazpen ezberdinetan emango zaion laguntza bi ardatz nagusitan funtsatuko da: hizkuntza berriei eman beharreko laguntza, eta talentu berriei eman beharreko laguntza. Bistakoa da zaila dela sorkuntza-prozesuak garatzea, aurrez ez baditugu sormena katalizatuko duten ezinbesteko egiturak eta guneak, alegia: elkartrukea, diziplinen arteko elkarguneak eta arte-adierazpen ezberdinen arteko bateraguneak. Horregatik, Administrazioaren eginkizuna da SORMEN LANTEGI horiek sustatzea eta egitasmo horien bideragarritasuna aztertzea.

Horretarako, eraldaketa-prozesu bati ekingo diogu, hau da, zatituegi dagoen eredu tradizional-sektorial batetik eredu integralago eta zeharkakoago batera, zeinean sektoreek errazago bilatuko dituzten komunikazio-bideak, eta zeinean sortzaileek, industriek eta publikoek era malguago batez elkar hartuko duten.

1. CONTRATO CIUDADANO POR LAS CULTURAS. Una vez realizados los trabajos con los grupos operativos de priorización de proyectos se plantea el abordaje de los mismos manteniendo como objetivos claros que enmarquen nuestra acción: a) Un contrato ciudadano por las culturas que refleje como punto final del proceso el compromiso de las propias instituciones de asumir una postura proactiva y dialogante con todos los sectores de la cultura; b) una propuesta de Ley Vasca de Acceso a la cultura que fije un marco mínimo de compromisos por parte de las administraciones para dar respuesta desde lo público y en todas las áreas culturales a los requisitos mínimos que éstas deben tener para favorecer un marco cultural inclusivo, plural, creativo y sostenible.

Uno de los retos fundamentales de nuestros días es poner al ciudadano en el centro de la política cultural. No podemos ver a los ciudadanos sólo como consumidores, ya sea de bienes culturales o artísticos, sino que debemos dar pasos claros y decididos para construir la ciudadanía cultural, entendida como la capacidad individual y social de participar activamente en la creación de significados y en el destino cultural. Sólo desde un tejido ciudadano activo será posible tener el adecuado caldo de cultivo para el nacimiento de nuevos creadores y nuevas industrias culturales.

Promoveremos una cultura de proximidad que coloque la participación ciudadana como valor irrenunciable y desarrolle políticas desde y para la ciudadanía, en toda su extensión, complejidad y sensibilidades; una cultura que no olvide que los destinatarios y actores de las políticas culturales son los ciudadanos y las ciudadanas vascas. El país necesita un reflejo en la cultura donde se mire plural, como realmente es. Diverso. Donde esa diversidad tenga oportunidad de reconocerse, recrearse y aun multiplicarse.

2. FOMENTO DE LA ACCIÓN CREATIVA Y FÁBRICAS DE CREACIÓN. El apoyo al actual tejido creativo de nuestro país en sus diferentes expresiones artísticas girará en torno a dos ejes principales, como son el apoyo a los nuevos lenguajes y el apoyo a los nuevos talentos. Es evidente la dificultad de desarrollar procesos creativos sin disponer de estructuras y espacios que sirvan de imprescindibles catalizadores de la creatividad, como son el intercambio, la intersección entre disciplinas y los encuentros entre las diferentes expresiones artísticas. Por ello, debe ser tarea de la Administración promover esas FÁBRICAS DE LA CREACIÓN y estudiar la viabilidad de los proyectos que en ellas se generen.

Para ello, abordaremos un proceso de transformación desde un modelo tradicional-sectorial excesivamente fragmentado hacia un modelo más integral y transversal donde los sectores existentes pueden encontrar con más facilidad espacios de comunicación y donde creadores, industrias y públicos puedan encontrarse y dialogar de una manera flexible.

Sortzaileen masa kritikoa handitzeko testuinguru egokia aurkitu behar dugu. Sortzaile-masa kritikoa nahikorik gabe, hots, bizitza kulturalen, haren adierazpideetan eta gizarteko beste esparru batzuetan eragiteko gaitasuna duen masarik gabe, ezinezkoa da benetako garapenaren alde egingo duten kultura-testuinguru berriak sortzea. Talentua sustatzeko egitura berriak bultzatuko ditugu (trukeak, egoitzak...); sorkuntzaren aldeko akuilu-lana indartuko dugu, sorkuntzari laguntzeko agindu berri baten bitartez, eta sortzaileen eskura zerbitzuak eta laguntzak jartzen dituzten zentro eta ekimenak bultzatuko ditugu.

3. KULTUREN, BAKEAREN ETA ASKATASUNAREN URTEA ETA ARTE, NATURA, SORKUNTZA ETA PENTSAMENDUAREN BIENALA. 2012. urtea Gernika, Durango, Eibar, Bilbo eta beste zenbait herriren bonbardaketaren 75. urteurrena izango da. Gure ustez urteurren hori une egokia da elkargune berezi bat proposatzeko, askatasunaren espazioa zabalduko duen bakea eskuratzeko ahalegin bateratuan. Kulturaren baliabide guztiak denbora berri baten bilaketaren zerbitzuan jarri nahi ditugu, tolerantzia eta berdinen arteko errespetuan oinarrituta. Aukera emango diegu sortzaileei bakegintzaren aldeko ekarpen eraldatzaileak egiteko, gizartean ulerbide eta harremanbide berriak urratuko dituen. Eta herritarrei bakeari buruzko elkarrizketa berriak eskainiko dizkiegu, kultura ezberdinen arteko elkarreraginari buruzkoak, horrela jakintza eta jarduteko gaitasuna aberasteko. 2012ko Bienala ere planifikatuko da, lehen mailako artista, sortzaile eta intelektualek, Urdaibaiko espazioan bildu eta hausnartzuz, euren sorkuntza eta hausnarketak gara ditzaten. Euren sortze-potentzialaren emaitzak era askotara agertu ahal izango dituzte, bai topaketa eran, bai testu, arte-lan edo eskuhartzeko efimero moduan edo beste hainbatetan.

4. KULTURA BULTZATUZ. Bizi dugun larrialdi ekonomiko honetan, Kultura Sailak euskal gizartean zabaldu nahi duen mezua da sinistuta gaudela, guztiz, kultura ere inbertsio ona dela, izari ekonomiko handiak dituen, eta ez dela apaingarriko elementu osagarri bat, garai hobeen esperoan ken daitekeena. Kultura dinamiko eta azkar batek laguntza bikaina eman diezaguke krisiaren enbatarri aurre egiteko, ez bakarrik giza-kapitala bezalako ondare baliotsuan inbertitzea ekartzen duelako, eta ondorioz zailtasunak era duinago batez gainditu ditzakegulako, baita ere kulturak gaitasun handia duelako itzulkinak erakartzeko, ekoizpen-sektoreak bizkortzeko, eta gure herriaren irudia geure etxean bertan eta munduko beste herritarren begietan zabaltzeko.

Asmoa dugu, arian-arian, batez ere dirulaguntzen mende dagoen eredu gaitzetzeko eta, horren ordez, erantzukidetasunean oinarritutako eredu finkatzeko, alegia, kalitatezko edukia eta lan-ereduak eskainiko dituen industria sortzea ahalbidetuko duena.

Beharrezkoa da, beraz, kultur enpresei kreditua eskuratzeko bidea emango dieten lan-ildo berriak zabaltzea, esaterako martxan jartzeko kapitalizazio berezia behar duten balizko proiektuak sustatzea.

Debemos conseguir un contexto adecuado para el incremento de la masa crítica de creadores. Sin una masa crítica de estos, con capacidad de influir en la propia vida cultural, en sus manifestaciones y en otros ámbitos sociales, es imposible la generación de nuevos contextos culturales favorecedores de un verdadero desarrollo. Promoveremos estructuras de promoción del talento (intercambios, residencias...), ahondaremos en el estímulo de la creación a través de la nueva Orden de ayudas a la creación y apoyaremos aquellos centros e iniciativas que ofrezcan servicios y acompañamiento a los diferentes creadores.

3. AÑO DE LAS CULTURAS, DE LA PAZ Y LA LIBERTAD Y BIENAL DE ARTE, NATURALEZA, CREACIÓN Y PENSAMIENTO. El año 2012 coincidirá con el 75 aniversario de los bombardeos de Gernika, Durango, Eibar, Bilbao y otras localidades. Consideramos que dicho aniversario es un momento adecuado para proponer un espacio de encuentro en el empeño común de la conquista de la paz que ensanche el espacio de la libertad, movilizando todos los recursos de la cultura a la búsqueda de un tiempo nuevo, basado en la tolerancia y el respeto entre iguales. Posibilitaremos a los creadores una contribución transformadora para la paz, que alumbré en la sociedad nuevos entendimientos y caminos, y ofreceremos a los ciudadanos y ciudadanas nuevos diálogos sobre la paz y la interrelación de diferentes culturas, que enriquezca su conocimiento y capacidad de acción. Asimismo se planificará la Bienal de 2012 que plantee un elemento de reflexión a artistas, creadores e intelectuales de primer orden, que en el espacio de Urdaibai encuentren el lugar para desarrollar el resultado de sus creaciones y reflexiones en forma de encuentros, textos, obra artística, intervenciones efímeras y todo aquello que resulta de ese potencial creativo.

4. KULTURA BULTZATUZ. En la actual coyuntura de contracción económica, nuestro Departamento tiene y quiere trasladar a la sociedad vasca el pleno convencimiento de que la cultura es también una buena inversión, un recurso de importantes dimensiones económicas, y no un componente suntuario y accesorio que puede sacrificarse a la espera de mejores tiempos. Una cultura dinámica y fuerte puede perfectamente ayudarnos a superar las embestidas de la crisis, no solamente porque supone invertir en un patrimonio tan valioso como es el capital humano y, de esa forma, contribuir a superar más dignamente la actual situación de dificultad, sino también por la gran capacidad que posee la cultura para traer retornos, dinamizar los diversos sectores productivos y potenciar la imagen de nuestro país ante nuestros propios ojos y los de los demás ciudadanos y ciudadanas del mundo.

Trataremos de superar progresivamente un modelo fundamentalmente subvencionador con otro de corresponsabilidad que permita generar una industria que aporte contenidos y modelos de trabajo de calidad.

Es necesario por lo tanto abrir nuevas líneas de trabajo que faciliten el acceso a crédito de las empresas culturales, como la incentivación de posibles proyectos que para su puesta en marcha requieran de una capitalización especial.

Kultura-industrietan lehiakortasuna hobetzeko eta berrikuntzarako plan bat jarriko dugu martxan, eta enpresa-ekimena sustatuko duten proiektuak bultzatuko ditugu, sektoreari aurre egiten eta baldintza hobeeekin lehiatzen laguntzeko. Beste alde batetik, "Kulturaz Hazi, Consuma Cultura" kanpainarekin jarraituko dugu, kulturaren kontsumoa hainbat euskarritan diruz laguntzeko.

5. KULTURA 2.0 PLANA. Digitalizazioak eta komunikabide eta kanal berriek gehien eragiten dioten sektore aktiboetako bat kulturaren industria da. Ohiko logika industrial hutsean edukia estuki lotuta zegoen euskarri batera, eta euskarri hori materialki desagertu den unetik, benetako iraultza gertatu da, bai industria bakoitzaren balio-katean, bai edukiak sortzeko eta zabaltzeko prozesuetan ere. Horren eragina, gainera, biziagoa da kultura txikietan, globalizazio eta deslokalizazioaren aurrean minberagoak baitira.

Alde horretatik giltzarria iruditzen zaigu sektore bakoitzean komunikazioa hobetuko duten I+G+B politika espezifikoak sustatzea, produktu eta eduki berrien bideragarritasuna eta zentzua beste eduki-industriekin loturiko ikuspegi transbertsalaren galbahetik aztertuko dituztenak, eta software libreko tresnak aplikatzeko aukerak aztertzea.

Horretarako, Kulturklik ataria garatzen jarraituko dugu, eta zerbitzu-atariaren izaera indartuko duten funtzionaltasun berriak erantsiko dizkiogu; herritarrekiko eta sektoreekiko komunikazio-bide berrien ezarpena aztertuko dugu, eta sektoreen egokitzapen teknologikoa bideratzeko planak martxan jarriko ditugu.

6. KULTURA JASANGARRIA. Administrazio publikoak geure zeregina zorrotz behar dugu. Zeregin hori, funtsean, gure mendeko lurraldean kultur dentsitatea sortzean datza. Eta dentsitate hori sortzeko ahalik eta ekimen zibil gehien sustatu behar ditugu, ahalik eta proiektu gehienekin kooperatu, lurralde-sareak sendotu, nonahi kultur establezimenduak errotu eta elkar ezagutzen ez duten errealitateekin harremanak garatu.

Horrek guztiak esan nahi du, batetik, dauden kultur baliabide guztien ezagutza bultzatu behar dela eta haienganako sarbidea erraztu, eta, bestetik, bultzatu behar direla baita ere difusio-jarduerak, toki-mailan lankidetzasareak sortzea, eta oraingo kultur errealitatea ez ezik geroan egon litezkeen eskari berriak aztertzeko eta haien jarraipena egiteko jarduerak.

Ahalegina egingo dugu, bestalde, kultura-azpiegitura eta -ekitaldi handien bideragarritasuna eta jasangarritasuna planifikatzeko; kultur finantzaketaren sistema jasangarri bat zehaztu nahi dugu, eta kultura-sentsibilitate ezberdinen iraupena eta garapena zaindu.

Hortxe kokatu behar da kultura-azpiegituren eta -ekitaldien mapa, azpiegitura eta ekitaldi horiei begira laguntza instituzionala finkatzeko irizpideen oinarriak jarriko dituen.

Pondremos en marcha un plan de mejora de la competitividad y de innovación en industrias culturales e impulsaremos proyectos de emprendizaje que permitan al sector resistir y prepararse para competir en mejores condiciones. En otro sentido continuaremos con la Campaña "Kulturaz Hazi, Consuma Cultura" para subvencionar la adquisición de cultura en múltiples soportes.

5. PLAN CULTURA 2.0. La industria cultural es uno de los sectores más activos y afectados tanto por la digitalización como por los nuevos canales de comunicación y difusión. La ruptura de la lógica puramente industrial, donde el contenido iba ligado a un soporte, la desmaterialización del mismo, ha supuesto una auténtica revolución tanto en la cadena de valor de cada una de las industrias como en los procesos de creación y distribución de los contenidos, con una mayor incidencia en las culturas pequeñas que pueden verse afectadas por los fenómenos de globalización y deslocalización.

En este sentido, creemos clave mantener y adecuar la incentivación de políticas específicas de I+D+i que permitan mejorar la comunicación dentro de cada uno de los sectores, explorar la viabilidad y el sentido de nuevos productos y contenidos desde una óptica trasversal con otras industrias y estudiar la aplicación de herramientas de software libre.

Para ello continuaremos con el desarrollo del portal Kulturklik, incorporándole nuevas funcionalidades que refuercen su vocación de portal de servicios, estudiaremos la implantación de nuevos canales comunicacionales con la ciudadanía y los sectores, y pondremos en marcha planes de adaptación tecnológica de los diferentes sectores.

6. CULTURA SOSTENIBLE. Las administraciones públicas debemos afinar nuestro papel. Nuestra función se centra, básicamente, en crear densidad cultural en el conjunto del territorio. La densidad cultural se crea fomentando el crecimiento del máximo número posible de iniciativas civiles, cooperando en el máximo número de proyectos, consolidando redes territoriales, desarrollando establecimientos culturales en todas partes y manteniendo relaciones entre realidades que se ignoran.

Todo ello supone tanto el facilitar el conocimiento y acceso a los múltiples recursos culturales, como la realización de actividades de difusión, creación de redes de cooperación en lo local y seguimiento y estudio no sólo de la realidad cultural sino de las posibles nuevas demandas futuras.

Pero trataremos también de planificar la viabilidad y sostenibilidad de las grandes infraestructuras y eventos culturales, concretar un sistema de financiación cultural sostenible y preservar la pervivencia y desarrollo de las diferentes sensibilidades culturales.

Aquí se inscribe el seguir alimentando el directorio de infraestructuras y actividades culturales que sirva de base a la elaboración de criterios generales de apoyo institucional.

Indarrean dagoen kulturarentzako laguntza fiskalen sistema ezagutarazteko kanpaina egingo dugu eta sistema hori hobetzeko proposamenak egingo dituen lantalde bat jarriko dugu martxan.

7. HEZIKETA ARTISTIKOA SUSTATZEA. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin elkarlanean jardungo dugu, Arte Eszenikoen Eskola sortzeko eta unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzan heziketa artistikoa indartzeko lagungarriak izan daitezkeen kurrikulu-hobekuntzetan.

8. KANPO-PROIEKZIOA. Kultura-eduki propioak sortuko dituen industria bat bermatuta soilik ziurta daiteke tokiko kultura baten presentzia nazioarteko merkatu globaletan. Areago, globalizazio prozesuan tokiko identitateak irauteko duen modu bakarra da ingurune global horretan bere tokia ziurtatuko dioten kalitatezko kultura-ondasunak ekoiztea. Eta, behin ondasunok eskura edukiz gero, haien presentzia eta beste arloetarako hedapena finkatuko duten estrategia egokiak diseinatu. Horretarako, ezinbestekoa da Etxepare Institutuarekiko koordinazioa, Institutuaren xedea euskal kultura kanpoan zabaltzea baita, beraren forma eta hizkuntza guztietan.

Oraingo Kulturaren Euskal Behatokia eraldatzen lan egingo dugu, haren jarduketak hobetzeko eta eremu berrietara hedatzeko –esaterako, sareko lana edo kultura-politiketan esku hartzen duten eragileentzako laguntza teknikoa, besteak beste–. Ikerketa sozial aplikatua garatzen jarraituko dugu, bai eta kulturarekin loturiko jakintzaren eta informazioaren kudeaketarekin ere. Gainera, kulturarekin edo kulturarentzat lan egiten duten agenteak prestatzeko bideak aztertuko ditugu.

Realizaremos una campaña de difusión del actual sistema de ayudas fiscales a la cultura y pondremos en marcha un grupo de trabajo que realice propuestas que permitan su mejora.

7. FOMENTO DE LA EDUCACIÓN ARTÍSTICA. Colaboraremos con el Departamento de Educación, Universidades e Investigación en la creación de la Escuela de Artes Escénicas y en mejoras curriculares que contribuyan a potenciar la educación artística en la enseñanza no universitaria.

8. PROYECCIÓN EXTERIOR. Solamente garantizando una industria que produzca contenidos culturales propios se puede asegurar la presencia de la cultura vasca en los mercados globales internacionales. Más todavía, en el proceso de globalización la única garantía de preservación de la identidad local es la producción de bienes culturales de calidad que la coloquen en este entorno global. Y una vez que se disponga de los mismos, trazar las adecuadas estrategias que vayan asegurando su presencia y penetración en otros ámbitos. Para ello es fundamental la coordinación con el Instituto Etxepare, entre cuyas funciones está la de contribuir a la difusión en el exterior de la cultura vasca en todas sus formas y lenguas.

Se trabajará en la transformación del actual Observatorio Vasco de la Cultura, con el objetivo de mejorar las actuaciones que lleva a cabo, y ampliarlas a nuevos campos, como el trabajo en red o la asistencia técnica a los agentes que intervienen en las políticas culturales, entre otros. Se continuará con el desarrollo de las funciones de investigación social aplicada así como la gestión del conocimiento y de la información relacionada con la cultura. Además, se analizarán vías para formación a los agentes que trabajan con o para la cultura.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p>1. KULTUREN ALDEKO HERRITARTASUN KONTRATUA</p> <ul style="list-style-type: none"> • 1. Planeko lantaldeak. <ul style="list-style-type: none"> 1. Lantaldeak eta batzorde espezializatuak sortzea eta martxan jartzea. 2. Kontratuaren Idazkaritza eta dinamizazioa. • 2. Kultura Sarbiderako Euskal Legea. <ul style="list-style-type: none"> 1. Erakundearteko Taldearen lana. 2. Erabakiak hartzea. <p>2. EKINTZA SORTZAILEA SUSTATZEA ETA SORKUNTZA LANTEGIAK</p> <ul style="list-style-type: none"> • 1. Sorkuntza lantegiak ezartzea. 	<p>12</p> <p>1</p> <p>1</p> <p>1</p>	<p>1. CONTRATO CIUDADANO POR LAS CULTURAS</p> <ul style="list-style-type: none"> • 1. Grupos de trabajo del plan. <ul style="list-style-type: none"> 1. Seguimiento del trabajo de los grupos operativos y comisiones especializadas. 2. Secretaría del Contrato y dinamización. • 2. Ley Vasca de acceso a la cultura. <ul style="list-style-type: none"> 1. Trabajo en Grupo Interinstitucional. 2. Toma de decisión. <p>2. FOMENTO DE LA ACCIÓN CREATIVA Y FÁBRICAS DE CREACIÓN</p> <ul style="list-style-type: none"> • 1. Implantación de Fábricas de creación.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
1. Lantegiak irekitzea. Eredu teorikoa garatzea.	3	1. Apertura de fábricas. Desarrollo de modelo teórico.
• 2. Folklore tradizionalaren I+G+B Zentroa.		• 2. Centro de I+D+i de folklore tradicional.
1. Funtzionamendu-eredua garatzea.	1	1. Desarrollo de modelo de funcionamiento.
• 3. Antzerki-konpainien egoitzetarako Plan Pilotua.		• 3. Plan Piloto de Residencias de Compañías teatrales.
1. Udalerrien eta konpainien arteko hitzarmenen jarraipena eta hedapena.	2	1. Continuación y extensión de los convenios entre municipios y compañías.
• 4. Sortzaileen egoitzak.		• 4. Residencias de creadores.
1. Udalerrien eta konpainien arteko proposamen eta hitzarmenaren eredua idaztea.	1	1. Redacción de modelo de propuesta y convenio con municipios.
• 5. Sektoreen sorkuntzarako laguntza espezifikoak.		• 5. Ayudas específicas para creación sectorial.
1. Koreografia sorkuntzak.	10	1. Creaciones de coreografía.
2. Musika-konposizioarako proiektuak.	12	2. Proyectos de composición musical.
3. Zinematografia-gidoen sorkuntza.	3	3. Creación de guiones cinematográficos.
4. Antzerki-testu berriak sortzea.	6	4. Creación de nuevos textos teatrales.
5. Arte plastikoen eta bisualen sorkuntza eta ekoizpena.	10	5. Creación y producción en el área de artes plásticas y visuales.
6. Literatura-lanen itzulpena.	22	6. Traducción de obras literarias.
• 6. Euskadi literatura sariak.		• 6. Premios literarios Euskadi.
1. Euskarazko literatura.	1	1. Literatura en euskera.
2. Gaztelaniazko literatura.	1	2. Literatura en castellano.
3. Euskarazko haur eta gazte literatura.	1	3. Literatura infantil y juvenil en euskera.
4. Gaztelaniazko haur eta gazte literatura.	1	4. Literatura infantil y juvenil en castellano.
5. Euskarazko itzulpen onena.	1	5. Mejor traducción al euskera.
6. Ilustrazio saria.	1	6. Premio de Ilustración.
7. Euskarazko Saiakera saria.	1	7. Premio de ensayo en euskera.
8. Gaztelaniazko Saiakera saria.	1	8. Premio de ensayo en castellano.
9. Gure Artea sariak.		9. Premios Gure Artea.
3. KULTUREN, BAKEAREN ETA ASKATASUNAREN URTEA ETA ARTE, NATURA, SORKUNTZA ETA PENTSAMENDUAREN BIENALA.		3. AÑO DE LAS CULTURAS, DE LA PAZ Y LA LIBERTAD Y BIENAL DE ARTE, NATURALEZA, CREACIÓN Y PENSAMIENTO.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<ul style="list-style-type: none"> • 1. 2012 Fundazioa eratzea. 1. Behin betiko programa lantzea. 2. Programa eta aurrekontuak onartzea. • 2. Programak garatzea. 1. 2012. urtean programa antolatzea, kudeatzea eta haren jarraipena egitea. 	<p style="text-align: center;">1</p> <p style="text-align: center;">1</p> <p style="text-align: center;">3</p>	<ul style="list-style-type: none"> • 1. Constitución de la Fundación 2012. 1. Elaboración Programa definitivo. 2. Aprobación Programa y presupuestos. • 2. Desarrollo de programas. 1. Organización, gestión, seguimiento para el desarrollo del programa. A lo largo del 2012.
4. KULTURA BULTZATUZ		4. KULTURA BULTZATUZ
<ul style="list-style-type: none"> • 1. Kultura Bultzatuz programa. 1. Kultura-enpresa txikian eragiten duen kultura-kontsumorako laguntzak. 	400	<ul style="list-style-type: none"> • 1. Programa Kultura Bultzatuz. 1. Ayudas al consumo cultural con incidencia en la pequeña empresa cultural.
<ul style="list-style-type: none"> • 2. Kultura Bonoa. 	52.000	<ul style="list-style-type: none"> • 2. Bono Cultura.
<ul style="list-style-type: none"> • 3. Zineuskadi. 1. Udal zinema-aretoen sarea garatzea. 	1	<ul style="list-style-type: none"> • 3. Zineuskadi. 1. Desarrollo de la Red de salas de cine municipales.
<ul style="list-style-type: none"> • 4. Kulturaren elkartegintza sektorea hobetzeko ELKARTE I+G+B Plana. 1. Txosten zuzentzailea. 2. Jarduteko proposamenak egitea. 	1	<ul style="list-style-type: none"> • 4. Plan ELKARTE I+D+I de mejora del sector asociativo de la cultura. 1. Informe director. 2. Realización de propuestas de actuación.
<ul style="list-style-type: none"> • 5. Elkarte berriak sustatzea eta dinamizatzea. 	3	<ul style="list-style-type: none"> • 5. Fomento y dinamización de nuevas asociaciones.
<ul style="list-style-type: none"> • 6. Dirulaguntza izendunak elkarreentzat. 	20	<ul style="list-style-type: none"> • 6. Subvenciones nominativas a Asociaciones.
<ul style="list-style-type: none"> • 7. Kulturaren alorreko enplegu-sorgune berriak bultzatzea. 	6	<ul style="list-style-type: none"> • 7. Impulso a nuevos yacimientos de empleo cultural.
<ul style="list-style-type: none"> • 8. Kultura kreditua. 1. Ezarpena. 	1	<ul style="list-style-type: none"> • 8. Crédito cultura. 1. Implantación.
<ul style="list-style-type: none"> • 9. Kultur Kutxa. Bikaintasun proiektuak. 1. Aurrezki-kutxekin eta finantzatzaileekin eredu eta hitzarmena garatzea. 	1	<ul style="list-style-type: none"> • 9. Kultur Kutxa. Proyectos de excelencia. 1. Desarrollo de modelo y convenio con Cajas y Financiadores.
<ul style="list-style-type: none"> • 10. Ekoizpena dinamizatzea. 1. Musika. 	22	<ul style="list-style-type: none"> • 10. Dinamización de la productividad. 1. Música.
<ul style="list-style-type: none"> 2. Dantza. 	12	<ul style="list-style-type: none"> 2. Danza.
<ul style="list-style-type: none"> 3. Ikus-entzunezkoa. 	46	<ul style="list-style-type: none"> 3. Audiovisual.
<ul style="list-style-type: none"> 4. Liburuak. 	400	<ul style="list-style-type: none"> 4. Libro.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p>5. KULTURA 2.0 PLANA</p> <ul style="list-style-type: none"> • 1. Kulturklik. <ol style="list-style-type: none"> 1. Edukien kudeaketa. 2. Elkarreragina hobetzea. 3. Kudeaketa formula berria aztertzea. 4. Kulturklub. • 2. Kultura-industriak digitalizatzea. <ol style="list-style-type: none"> 1. Proiektu bultzatzaile zeharkakoak sustatzea. 2. Kultura 2.0 laguntzak. • 3. Edukiak digitalizatzea. <ol style="list-style-type: none"> 1. Edukiak formatu berrietan digitalizatzeko eta sortzeko laguntzak. 	<p>1</p> <p>1</p> <p>1</p> <p>3</p> <p>20</p> <p>50</p>	<p>5. PLAN CULTURA 2.0</p> <ul style="list-style-type: none"> • 1. Kulturklik. <ol style="list-style-type: none"> 1. Gestión de contenidos. 2. Mejora de la interactividad 3. Estudio de nueva fórmula de gestión. 4. Kulturklub. • 2. Digitalización de las industrias culturales. <ol style="list-style-type: none"> 1. Incentivación de proyectos tractores transversales. 2. Ayudas Cultura 2.0 • 3. Digitalización de contenidos. <ol style="list-style-type: none"> 1. Ayudas a la digitalización y creación de contenidos en nuevos formatos.
<p>6. KULTURA JASANGARRIA</p> <ul style="list-style-type: none"> • 1. Liburu, antzerki eta zinemari begira, publikoen parte hartzea dinamizatuko duten sustapen-kanpainak garatzea. • 2. Difusio-jarduerak. <ol style="list-style-type: none"> 1. Liburuan. 2. Antzerkian. 3. Dantzan. 4. Musikan. • 3. Babesletza. <ol style="list-style-type: none"> 1. Indarrean dagoen kulturarentzako laguntza fiskalen sistema ezagutarazteko kanpaina. 2. Mezenazgoari buruzko lantaldea. 	<p>6</p> <p>1</p> <p>1</p>	<p>6. CULTURA SOSTENIBLE</p> <ul style="list-style-type: none"> • 1. Desarrollo de programas de incentivación que dinamicen la asistencia de públicos en relación al libro, teatro y cine. • 2. Actividades de difusión. <ol style="list-style-type: none"> 1. Del libro. 2. Del teatro. 3. De la danza. 4. De la música. • 3. Patrocinio. <ol style="list-style-type: none"> 1. Campaña de difusión del actual sistema de ayudas fiscales a la cultura. 2. Grupo de trabajo sobre mecenazgo.
<p>7. HEZIKETA ARTISTIKOA SUSTATZEA</p> <ul style="list-style-type: none"> • 1. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin elkarlanean jardutea, Arte Eszenikoen Eskola sortzeko eta unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzan heziketa artistikoa indartzeko lagungarriak izan daitezkeen kurrikulu-hobekuntzetan. <p>8. KANPO PROIEKZIOA</p>		<p>7. FOMENTO DE LA EDUCACIÓN ARTÍSTICA</p> <ul style="list-style-type: none"> • 1. Colaboración con el Departamento de Educación, Universidades e Investigación en la creación de la Escuela de Artes Escénicas y en mejoras curriculares que contribuyan a potenciar la educación artística en la enseñanza no universitaria. <p>8. PROYECCIÓN EXTERIOR</p>

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<ul style="list-style-type: none"> • 1. Jaialdi nazionaleri eta nazioartekoei laguntza ematea. <ul style="list-style-type: none"> 1. Ikus-entzunezkoen arloan diruz lagundutako jaialdi kopurua. 2. Antzerkiaren arloan diruz lagundutako jaialdi kopurua. 3. Dantzaren arloan diruz lagundutako jaialdi kopurua. 4. Musikaren arloan diruz lagundutako jaialdi kopurua. • 2. “Euskadiko Soinuak” programa. <ul style="list-style-type: none"> 1. Estatuko eta nazioarteko musika-azoketan parte hartzeagatik diruz lagundutako enpresa kopurua. • 3. Eskualdeetako kooperazioa. <ul style="list-style-type: none"> 1. Kantaurikoko Erkidegoa. 2. Pirinioetako Lan Erkidegoa. 	<p style="text-align: center;">2</p> <p style="text-align: center;">4</p> <p style="text-align: center;">3</p> <p style="text-align: center;">3</p> <p style="text-align: center;">12</p> <p style="text-align: center;">1</p> <p style="text-align: center;">1</p>	<ul style="list-style-type: none"> • 1. Apoyo a festivales de carácter nacional e internacional. <ul style="list-style-type: none"> 1. N. de festivales subvencionados en el sector audiovisual. 2. N. de festivales subvencionados en el sector teatral. 3. N. de festivales subvencionados en el sector de la danza. 4. N. de festivales subvencionados en el sector de la música. • 2. Programa “Euskadiko Soinuak”. <ul style="list-style-type: none"> 1. N. de empresas subvencionadas por su presencia en ferias musicales estatales e internacionales. • 3. Cooperación regional. <ul style="list-style-type: none"> 1. Comunidad del Cantábrico. 2. Comunidad de los Pirineos.
<p>9. KULTURAREN EUSKAL BEHATOKIA</p> <ul style="list-style-type: none"> • 1. Urtean egindako estatistika-eragiketen kopurua. • 2. Urtean egindako ikerketa eta azterketa kopurua. • 3. Kulturkaria boletinean agertutako argitalpen elektronikoen kopurua. 	<p style="text-align: center;">2</p> <p style="text-align: center;">3</p> <p style="text-align: center;">4</p>	<p>9. OBSERVATORIO VASCO DE LA CULTURA</p> <ul style="list-style-type: none"> • 1. N. anual de operaciones estadísticas realizadas. • 2. N. anual de investigaciones y estudios realizados. • 3. N. anual de publicaciones electrónicas del boletín Kulturkaria.
<p>10. KULTURA AZPIEGITURAK</p> <ul style="list-style-type: none"> • 1. Donostiako Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa SA merkataritza-sozietatearen kapitalaren handitzean Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioaren parte hartzea. • 2. Gernikako Astra fabrika birgaitzeko lanak amaitzea. • 3. Bilbon, Zorrotzaurre inguruan, “Paper Fabrika” proiektua eraberritzeko lanen Exekuzio Plana eta lanak abiatzea. 		<p>10. INFRAESTRUCTURAS CULTURALES</p> <ul style="list-style-type: none"> • 1. Toma de participación de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi en la ampliación de capital de la sociedad mercantil Centro Internacional de Cultura Contemporánea, S.A. (CICC, S.A.) (Donostia-San Sebastián). • 2. Fin rehabilitación de la Fábrica Astra en Gernika. • 3. Plan de ejecución y comienzo trabajos de reforma del proyecto “Papelera” en el entorno de Zorrotzaurre en Bilbao.

PROGRAMA	PROGRAMA
4514 HISTORIA ETA ARTE ONDAREA	4514 PATRIMONIO HISTÓRICO ARTÍSTICO
ARDURADUNA	RESPONSABLE
<u>11 KULTURA</u>	<u>11 CULTURA</u>
KULTURA, GAZTERIA ETA KIROL SAILBURUORDEA	VICECONSEJERO DE CULTURA, JUVENTUD Y DEPORTES

MEMORIA

Kultura Ondarearen Zuzendaritza lau zerbitzutan banatzen da (Kultura Ondarearen Zentroa, Museoen Zentroa, Irargi-Dokumentu Ondarearen Zentroa eta Liburutegi Zerbitzua), eta haietako bakoitzaren funtzioak Sailaren egitura organikoa ezartzen duen Dekretuan zehazten dira.

Ekainaren 28ko 141/2011 eta 142/2011 Dekretuen bidez, onartu egin da Estatuaren Administrazio Orokorretik Euskadiko Autonomia Erkidegora irailaren 28ko 3069/1980 Errege Dekretuaren bitartez jabetza intelektuaren eta Estatuaren titulartasunpeko artxiboen kudeaketaren legegintza betearazteko alorrean eskualdatutako funtzio eta zerbitzuen handitzea.

Funtzio eta zerbitzuen handitze horrek bere ondorioak ditu Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren egituran eta eginkizunetan, zeren eta bertan kokatzen baitira sortu berria den Jabetza Intelektualaren Lurralde Erregistroa eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Artxibo Historikoak, zeinen kudeaketa bere gain hartzen baitu.

Beraz, Kultura Ondarean Zuzendaritzak, orain arteko lau programa handiak bultzatzeaz gainera (Euskal kultura ondarea zaintzea eta zabaltzea; Museoen Euskal Sistema garatzea; Artxiboen Euskal Sistema garatzea, eta Liburutegien Euskal Sistema garatzea), aurrerantzean jabetza intelektuaren eta Estatuaren titulartasunpeko artxiboen kudeaketaren legegintza betearazteko alorreko eskualdaketa horien ondorioz sortzen diren programa berrien kudeaketa ere bere gain hartuko ditu.

Memoria honetan, programa horietan ardaztuta eta 2012ko aurrekontuari begira Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren lehenetsunezko helburu eta ekintzak zeintzuk diren azalduko dugu.

La Dirección de Patrimonio Cultural se ha organizado tradicionalmente en cuatro servicios (Centro de Patrimonio Cultural, Centro de Museos, Centro de Patrimonio Documental de Euskadi-Irargi y Servicio de Bibliotecas), concretándose en el Decreto de Estructura Orgánica departamental las funciones que asume cada uno de ellos.

Por Decreto 141/2011, de 28 de junio, y Decreto 142/2011, de la misma fecha, se ha aprobado la ampliación de las funciones y servicios de la Administración General del Estado traspasados a la Comunidad Autónoma del País Vasco por el Real Decreto 3069/1980, de 28 de septiembre, en materia de ejecución de la legislación sobre propiedad intelectual y gestión de archivos de titularidad estatal.

Esta ampliación de funciones y servicios afecta a la estructura y a las funciones de la Dirección de Patrimonio Cultural, ya que se integran en ella el Registro Territorial de la Propiedad Intelectual, de nueva creación, así como los Archivos Históricos de Álava/Araba, Bizkaia y Gipuzkoa, cuya gestión se asume.

Por tanto, la Dirección de Patrimonio Cultural, además de impulsar los cuatro grandes programas que gestionaba hasta la actualidad (la protección y difusión del Patrimonio Cultural Vasco, el desarrollo del Sistema de Museos de Euskadi, el desarrollo del Sistema Vasco de Archivos y el desarrollo del Sistema Vasco de Bibliotecas), asume igualmente la gestión de los nuevos programas resultantes de estos traspasos: la ejecución de la legislación sobre propiedad intelectual y la gestión de los archivos de titularidad estatal.

En la presente memoria se concretarán, en relación a cada uno de esos programas, los objetivos y acciones prioritarias de la Dirección de Patrimonio Cultural para el ejercicio presupuestario 2012.

Aurreko urtealdian bezala, aurten ere helburu eta ekintza horiek ezartzeko edo zehazteko oinarritzko bi lanabes edo dokumentu ditugu eskura: Kultura Sailaren 2010-2013 aldirako Plan Estrategikoa eta Kulturen Aldeko Herritartasun Kontratua, bai eta Kontratuaren ondorioz sortu diren talde operatiboen proposamenak ere.

EUSKAL KULTURA ONDAREA ZAINTEARI ETA ZABALTZEARI DAGOKIONEZ, hauek dira 2012rako helburu nagusiak: 1) Kultura-ondarearekin zerikusia duen araudi-esparrua berraztertzea, 2) Kultura-ondarearen kudeaketa eta babesa arrazionalizatzeko plan bat aplikatzea, eta 3) Kultura-ondarea zabaltzeko, balioztatzeko eta haren gaineko gizarte-kontzientzia zioa sustatzeko planarekin jarraitzea

Lehenengo helburua dela eta, Euskal Kultura Ondareari buruzko Legea eta erregelamenduzko garapen-arauak aztertze eta izapidetzeko lanekin jarraituko dugu.

Kultura-ondarea kudeatzeari eta babesteari dagokionez, indartu egingo dugu euskal kultura-ondarearen babes juridikoa, monumentu eta monumentu-multzoen deklarazioen bitartez, bai eta arkeologia guneen deklarazioen bitartez ere.

Horrekin batera, bidezko hirigintza-dokumentuak eta lurralde-antolamendukoak aztertuko dira, ondare higiezia eta arkeologikoa babesteko araei dagokienez. Helburu berarekin, ingurumen alorrean indarrean dagoen legediaren ondorioz eta Lurzoruaren Legearen ondorioz dauden ingurumen-inpaktuak ebaluatuko dira.

Jarraituko dugu kultura-ondareari buruzko inbentarioak eta katalogazio-lanak egiten eta lantzen: industria-paisaien inbentarioarekin jarraituko dugu, bai eta mendiko burdinolena (Gipuzkoan) eta Bizkaiko Katalogo Arkeologikoan handitzearena.

Kultura-ondarearen alorrean dauden informazio-sistemak bateratu eta optimizatu egingo ditugu. Alde horretatik, Integra-Informazio Sistema Integratuaren inplantazioa amaituko da, zeinak helburua baitu oraingo datu-baseak antolatzea, kudeatzea eta kontrolatzea, datu-base guztiak berregituratuz eta erregistro bakar batean batuz.

Gipuzkoako material arkeologiko eta paleontologikoak zaintzeko Zentroaren kudeaketari jarraipena emango diogu, material horiek ikertzeko, euren azterketa konparatiboa egiteko eta entregatzeko leku gisa. Era berean, industria-materialen gordailua (Bilbo) eta material antropologikoen gordailua (Derio) mantenduko ditugu.

Kultura-ondarearen difusioaren alorrean, lehenetsunez dugu herritarrak eta erakundeak jakinaren gainean jartzea ondarea kontserbatzeko eta babesteko lanak duen eragin sozialaz. Beraz, 2011n hasitako komunikazio- eta sentsibilizazio-kanpainarekin jarraituko dugu.

Al igual que en el ejercicio anterior, en el presente ejercicio, para el establecimiento o concreción de los objetivos y las acciones, contamos con dos instrumentos o documentos de referencia básicos: el Plan Estratégico del Departamento de Cultura para el período 2010-2013 y el Contrato Ciudadano por las Culturas, así como las propuestas de los grupos operativos surgidos del mismo.

En materia de PROTECCIÓN Y DIFUSIÓN DEL PATRIMONIO CULTURAL VASCO estos son los objetivos prioritarios para el año 2012: 1) Revisar el marco normativo relacionado con el patrimonio cultural, 2) Aplicar un Plan de racionalización en la gestión y protección del patrimonio cultural, y 3) Seguir con el Plan de difusión, puesta en valor y concienciación social sobre el patrimonio cultural

Con respecto al primero de los objetivos apuntados se proseguirá con los trabajos de revisión y tramitación de la modificación de la Ley de Patrimonio Cultural Vasco y de las normas de desarrollo reglamentario

En materia de gestión y protección del patrimonio cultural, se intensificará la protección jurídica del Patrimonio Cultural Vasco mediante las declaraciones de Monumentos y Conjuntos Monumentales, contemplando también la declaración de zonas arqueológicas.

De forma paralela, se analizarán los documentos urbanísticos y de ordenación del territorio en lo referente a las normas de protección del patrimonio inmueble y arqueológico. Con la misma finalidad se evaluarán los impactos ambientales derivados de la legislación vigente de Medio Ambiente y de la Ley del Suelo.

Se insistirá en la actualización y la elaboración de nuevos inventarios y trabajos de catalogación sobre Patrimonio Cultural, continuando con el inventario de Paisajes Industriales, con el de Ferrerías de monte (en Gipuzkoa) y con la ampliación del Catálogo Arqueológico de Bizkaia.

Se unificarán y se optimizarán las fuentes de información existentes en materia de patrimonio cultural. En este sentido, se culminará la implantación del Sistema de Información integrado (proyecto "Integra") que tiene como objetivo la organización, gestión y control de la red de bases de datos actuales, reestructurando todas ellas, pasando a convertirse en un único registro.

Se continuará con la gestión del Centro de custodia de los materiales arqueológicos y paleontológicos de Gipuzkoa como lugar de investigación, análisis comparativo y entrega de los citados materiales. De igual modo, se mantienen el depósito de materiales industriales (Bilbao) y el de materiales antropológicos (Derio).

En el ámbito de la difusión del Patrimonio Cultural, se considera prioritario trasladar a la ciudadanía y a entidades e instituciones la importancia social de la labor de conservación y protección del patrimonio, por ello se seguirá con la campaña de comunicación y sensibilización iniciada en el 2011.

Ekintza zehatzen multzoan argitalpen zientifikoen lerroari eutsiko zaio: urteroko Arkeoikuska eta EKOB bildumako zenbaki berri bat argitaratuko dira.

Done Jakue Bideari dagokionez, Iparraldeko Done Jakue Bideekin loturiko ekintza eta proiektuak bultzatu eta indartuko dira, Kantabria, Asturias, Galizia, Nafarroa eta Errioxako erkidegoekin elkarlanean.

Nazioarte mailan, "Haitzuloetako Historiaurreko Artearen Bideak" izeneko nazioarteko elkartearen esparruan, lanean jarraituko dugu herrialde sustatzaileekin batera, "Haitzuloetako Historiaurreko Artearen Bidea" kultur ibilbidea balioztatzeko ekintza bateratuak diseinatzu.

Nazioartean jarraituz, Saharako herriari arkeologia mailan orain arte eman diogun laguntza zientifikoari eutsiko diogu.

Diru-laguntzei dagokionez, 2012. urtean finkatu egingo da obra publikoen aurrekontuaren %1eko erreserba eraikuntza- eta arkeologia-ondare babestera bideratzeko urteanitzeko agindu bakar bat ematearen aldeko dinamika. Baimendutako esku-hartze arkeologikoetan jasotako material arkeologiko eta paleontologikoak inbentariatzekeo diru-laguntzen programari eutsiko diogu.

Azkenik, jada Zain Fundazioa eratu denez gero eta Eraikuntza Ondarearen Plan Zuzentzailea idatzita dagoenez gero, plan hori gauzatzeari ekingo zaio.

MUSEOEN ZENTROA dela eta, 2012ari begira helburu nagusiak dira Euskadiko museoaren sarea sortzea eta abian jartzea, EMSIME garatuz eta implementatuz (dagoeneko abian dagoen prozesua), eta etorkizuneko Euskadiko Industria Lanaren Kultura Ondarea dinamizatzekeo Zentroaren lerroak definitzea, zeina geroko museo-sare horren eta industriaren eta teknikaren ondare-zentroentzat burua izango baita.

